

# Arrasate

P R E S S

ARRASATE • ARAMAIO / Egubakoitza / 2004ko ekainaren 4a / 676. zenbakia



## ERRUGBIA ETA GARAGARDOA BAT EGINDA

ARRASATE ERRUGBI TALDEAK NAZIOARTEKO ZAZPINAKO TXAPELKETA  
ETA GARAGARDOAREN JAI HANDIA EGINGO DITU ASTEBURUAN

ORAIN ETA HEMEN: MUSAKOLAKO KIROL-GUNEA/6 • KULTURA: ARZAMENDIREN OMENEZ/12

ARGAZKIA: ARRASATE ERRUGBI TALDEA

**GREMIOEN GIDA/20**

**GUARDIAKOFARMAZIAK**

- EGUBAKOITZA, 4**  
Amezua, Santa Marina 32 . . . . . 943 79 09 74
- ZAPATUA, 5**  
Español, Araba etorb. 14 . . . . . 943 79 18 65
- DOMEKA, 6**  
Ruiz, Maala 31 . . . . . 943 79 14 09
- ASTELEHENA, 7**  
Zabala, Zarugalde 42 . . . . . 943 77 16 30
- MARTITZENA, 8**  
Azkoaga, Ferrerías 1 . . . . . 943 79 15 15
- EGUAZTENA, 9**  
Azkoaga, Iturriotz 17 . . . . . 943 79 79 99
- EGUENA, 10**  
Corcuera, Maisu Aranbarri 1 . . . . . 943 79 22 26
- EGUBAKOITZA, 11**  
Irizar, Erguin 11 . . . . . 943 79 12 39

**TELEFONO JAKINGARRIAK**

- ERIETXEAK**  
Arrasateko Eskualde Ospitalea . . . . . 943 03 53 00  
Iguualatorioa . . . . . 943 71 26 91  
Santa Agedako Ospitalea:  
Gizonak . . . . . 943 79 39 00  
Emakumeak . . . . . 943 79 44 11  
Buru osasunerako etxea . . . . . 943 79 90 11
- LARRIALDIAK**  
SOS Deiak . . . . . 112  
Gurutze Gorria . . . . . 943 76 55 76  
DYA . . . . . 943 78 71 57
- ANBULATORIOAK**  
Guardiako medikua . . . . . 943 46 11 11  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 17:00etatik 08:30era  
Zapatuetan . . . . . 14:00etatik 08:30era  
Asteburuetan eta jaiegunetan . . . . . egun osoa
- Arrasate**  
Astelehenetik egubakoitzera . . . . . 08:00etatik 17:00etara  
Zapatuetan . . . . . 09:00etatik 14:00etara  
• Txanda hartzeko:  
medikuntza orok. eta pediatria 943 03 52 50  
• Espezialitateak . . . . . 943 03 53 11  
• Ikuskatzailea . . . . . 943 03 52 52  
• Kanpoko kontsultak . . . . . 943 03 53 11
- ANBULANTZIAK**  
Gipuzkoako Anbulantziak . . . . . 943 45 87 44
- ERTZAINZA**  
Arrasate . . . . . 943 79 71 99
- SUHILTZAILERAK**  
Udal taldea . . . . . 943 79 09 00  
Udal taldeko suhiltzaileburua . . . . . 943 79 20 72  
Zubillagako Eskualde Parkea . . . . . 088
- MATXURAK**  
Urak (Udal Zerbitzua) . . . . . 943 79 09 00  
Argindarra (Iberduero) . . . . . 943 12 01 62  
Gasa . . . . . 900 40 05 23  
943 79 78 44
- GARRAIOAK**  
Taxiak . . . . . 943 79 12 22  
PESA . . . . . 902 10 12 10
- HIRUGARREN ADINEKOENTZAKO ETXEAK**  
Iturbide egoitza . . . . . 943 79 72 11  
Abaroa erretiratuen egoitza . . . . . 943 79 81 57
- MONTEIRON LIBURUTEGIA**  
Monterron . . . . . 943 77 01 05

**MEZAK**

- San Joan parrokia**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 09:00 (gaztelaniaz)  
11:00 (euskaraz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (elebiduna)
- San Andres eliza**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 10:00 (elebiduna)  
11:00 (euskaraz)  
12:00 (gaztelaniaz)  
13:00 (gaztelaniaz)
- San Frantzisko eliza**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 09:00 (euskaraz)  
10:00 (gaztelaniaz)  
11:00 meza nagusia (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)  
19:00 (gaztelaniaz)
- Santa Teresa eliza**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 11:00 San Isidron (euskaraz)  
12:00 (gaztelaniaz)
- Santa Marinako eliza**  
19:00 (gaztelaniaz)
- Uribarri parrokia**  
Zapatua 19:00 (elebiduna)  
Domeka 11:30 (euskaraz)  
12:30 (gaztelaniaz)

**OHARRAK**

- 36KO GERRAKO BIKTIMAK**  
Domekan, 36ko gerran fusilatu eta desagerrarazita-ko debagoiendarrei omenaldia egingo diete. 12:00etan, lore eskaintza egingo dute Laubiden.
- 'ESKUAK ELKARRI'**  
Ekainaren 11n, 12an eta 13an, *Eskuak elkarri* ikuskizuna egingo dute Amaia Udal Antzokian. Astelehenetik aurrera txartelak salgai antzokian.
- 1950EKO KINTOAK**  
Ekainaren 12an, 1950eko kintoek ospakizuna egingo dute. 12:30ean, meza izango da San Frantzisko elizan. Horren ostean, txikiteoa izango da, eta 14:30ean, Musakola Hostalean bazkalduko dute. Eman izena ekainaren 8a aurretik. 943 79 01 07 (Roberto).
- HERRI ESKOLEN JAIA**  
Gaur, egubakoitza, Herri Eskolak ikasturte amaierako jaia egingo du, Musakolako San Antolinen. 16:00etatik 19:00etara, tailerrak, puzgarriak, eta karaokea egongo dira.
- 80 URTETIK GORAKOEI**  
San Juan egunean, 80 urtetik gorakoei omenaldia egingo diete Abaroan. Eraman NA udaletxera ekainaren 18a aurretik.

**AEDrenAGENDA**

- DRAGOI JANEAN LAGUNTZEKO**  
Herriko hainbat elkartet deialdia egin dute San Juan egunean, ekainaren 24an, Dragoi Janean laguntzeko. Interesatuak jo AEDra, izena ematera.
- MANIFESTAZIOA IRUÑEAN**  
Bihar, zapatua, Kontseiluak manifestazioa egingo du Iruñean, *Hizkuntza eskubidea denon konpromisoa* da lelopean. 17:30ean hasiko da.


**URBANOENORDUTEGIA**

- Gorostizatik Eroskira**  
08:00, 09:00, 10:00, 11:00, 12:00, 13:00, 14:00, 15:00, 16:00, 17:00, 18:00, 19:00, 20:00 eta 21:00.  
IBILBIDEA: Gorostiza, Erguin B, Arimazubi, Alecop, Uribarri, San Andres, Garibai, ospitalea, Biteri, Legarre, Musakola eta Eroski.
- Eroskitik Gorostizara**  
08:35, 09:35, 10:35, 11:35, 12:35, 13:35, 14:35, 15:35, 16:35, 17:35, 18:35, 19:35, 20:35 eta 21:35.  
IBILBIDEA: Eroski, Joan Bengoa, Santa Teresa, Cristo Obrero, Obenerreka, Makatzena, J.L. Iñarra, San Frantzisko, Muxibar, Zarugalde, Erguin A eta Gorostiza.

**ORAINDELA 10URTEARRASATEN**

**Udalak eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmena**

Arrasateko Udalak eta Eusko Ikaskuntzak hitzarmena sinatu zuten. Horren arabera, Udalak bazkide ongile moduan 250.000 pezetako kuota ordaintzea erabaki zuen. Horren truke, hainbat liburu emango zizkion Udalarari. Arrasatekoa izan zen hitzarmen hori sinatu zuen lehen udala.



**BERTAKOBERBAK/ Juan Martin Elexpuru**

*"Menustu"*



Eskatu. Edozer gauza, erropia, personia, pareta bat ero edozer gauza.


GORKA ORTEGA

**HAUGIROA!**

<b>MINIMOIA</b> Egubakoitza, 28	<b>7°C</b>
<b>MAXIMOIA</b> Zapatua, 29	<b>27°C</b>
<b>ASTEKO EURIA (l/m²)</b>	<b>0,8 L</b>
	Max. Min. Euria
Eguaztena, 26	26°C 13°C - l/m²
Eguena, 27	25°C 10°C - l/m²
Egubakoitza, 28	27°C 7°C - l/m²
Zapatua, 29	27°C 11°C 0,8 l/m²
Domeka, 30	16°C 15°C - l/m²
Astelehena, 31	24°C 10°C - l/m²
Martitzena, 1	24°C 14°C - l/m²

Bergariako San Juan auzoan jasotako datuak

**ARRASATE IRRATIA FM 107.7**



**Iñaki Antiguadadi elkarrizketa irrastian**

Astean herrian izan da Iñaki Antiguadadi, EHUko irakaslea, garapen jasangarriaren gainean berbaldia egiten. Aste Berdean murgilduta gaudela eta, hainbat berbaldi eta ekitaldi izan da Arrasaten ere, eta irrastian hizlari batzuekin berba egiteko aukera izan dugu. Zapatua eta domekan errepikatuko dugu elkarrizketa hori, baina baita beste batzuk ere. Esate baterako, Edorta Agirre gastronomia adituarekin entsaladen gainean egindakoa.

**Pilota eta mendia astelehenean**

Asteburua oparoa datorrenez kirol kontuetan, emaitzak gainbegiratu ditugu datorren astelehenean. Batetik, domekako pilota neurketa izango dugu hizpide, baina gainera, Hiru Handiak ibilaldian esku hartu duten lagunekin ere izango gara. Martitzenean, berriz, astronomia kontuei egingo diegu tarte. Egun horretan, Artizarra Eguzkiaren paretik pasatuko da, eta fenomeno bitxi hori hizpide izango dugu Ilatargi taldeko kideekin.



**ASTEKO PROGRAMAZIOA**

- EGUBAKOITZA**  
19:10 Planning Prest
- ZAPATUA**  
10:00 Asteko albistekak.  
10:15 Asteko elkarrizketak: Iñaki Antiguadadi; Edorta Agirre; Ariz Navarros. Numen musika taldeko abeslaria; Iñaki Lasa, Kontseiluko kidea...
- DOMEKA**  
10:00 Asteko albistekak  
10:15 Asteko elkarrizketak
- ASTELEHENETIK EGUBAKOITZERA**  
09:00 Albistekak  
10:00 Euskadi Irratiko albistekak  
10:06 Igo Autobusera magazina: efemerideak, elkarrizketak, kirolak...  
11:00 Euskadi Irratiko albistekak  
11:06 Igo autobusera magazina  
11:30 Arrasate Irratiko albistekak  
11:40 Igo autobusera magazina  
12:00 Euskadi Irratiko albistekak  
12:06 Izarren ordua: abesti ezagunak.  
13:00 Euskadi Irratiko albistekak.  
14:00 Goizeko saioaren errepikapena.  
17:00 Izarren ordua.  
19:00-21:00-23:00 Albistegi laburra
- MARTITZENA**  
19:10 Iluntzean Erramun Martikorena
- EGUENA**  
19:10 Noraezean

## KALEINKESTA/ Europako elekziñuek inportantiek die?



**PELLO GARAI**  
Langillie




**ASIER MADINABEITIA**  
Langillie



**GARBIÑE HERIZ**  
Langillie



**BITTOR AMOZARRAIN**  
Langabie



**JOSEBA IMANOL TALLEDO**  
Langillie



**NEREA KEREJETA**  
Ikaslie

Horreik elekziñuok oso urrin geraketan jat. Esaten daue hamen egindako gauzek Europan eragin handixe daukiela, baiñe neuk gertuko gauzekin ardura haundixaue hartzen dot.

Bai, jakiña. Hamen, Euskal Herrixen, bizi dogun egoerie kontuen hartute, HZ ilegalizate eta adierazpen askatasun barik, inportantie da Europan horren danan barri eukittie.

Europakuek urrin samar geraketan diela pentsetan dot, baiñe inportantiek die. Euskal herritarron berbie kanpuen be entzun daille, traba haundixek jarri duskuen arren.

Ez daukie bertako elekziñuek besteko inportantziarik; egixe da, baiñe, honeik be inportantiek die-la. Euskal Herrixen be Europa da eta geuk be han egon biher dogu.

Horreik elekziñuok oso inportantiek die. Iparraldekuak aukerie daukie, eta Hegoaldekuak Españak ez dusku presentetan ixten. Naziño bat gare, errepre-sentaute egon biher dogu.

Europako elekziñuek ez dustie eragitten, neuretako ez daukie inportantzia haundirik. Gurau dittut hamengo elekziñuek, eta horrei be ez dutzet kasu haundirik egitten...

## TXALOAKETATXISTUAK



**TXISTUAK NORTASUN AGIRIA EGITEKO GANORARIK EZ** Astelehenean, ohi bezala, IMI zaharrera nortasun agiria egitera etorri ziren. Lehenengo txanda 09:45ean zen, baina 10:50ean hasi ziren NAK egiten. Zeregin horretara joandako askok lana zuten ordu horretan, eta denbora luzea galdu zuten, NA egiten dutenen erruz. Horregatik oso haserre daude eta gugana jo dute, kexa hori aditzera emateko.

## ETABARRUAN...

KIROLA / 11

### Judo taldeak sei domina

Joan den domekan, Arrasateko Judo taldeak Andorratik sei domina ekarri zituen.

KULTURA / 12

### Rikardo Azkargorta

Rikardo Azkargorta margolari bergararrari elkarrizketa egin diogu. Erakusketa ipini du herrian.

GAZTEAK / 13

### Gehituren erakusketa

Udal Sexologia Zerbitzuak homosexualitatearen gaineko erakusketa ipini du gaztetxean.

## ASTEKO DATUA

# 1.245

### LAGUNEK IKUSI ZUTEN 'EL ULTIMO SAMURAI' FILMA

Urtariletik maiatza bukaera arte filmak eman dituzte Amaia Udal Antzokian. Orain eskaintza hori eten egin dute, balorazioa egiteko. Filmik ikusia *El último samurai* izan da.

## BESTEKEKESANA

“Orain dela bi hilabete-tik Aranzadi zientzia elkarteko institutuko gerentea naiz. Oso lan interesgarria da eta erronka handia da niretzat. Aranzadik 50 urte baino gehiago ditu eta oso ondo kokatuta dago gizartean. Hainbat proiektu bideratzeko, institutua sortu gura zuten, eta nire lana da institutu hori martxan ipintzea. (...) Lan honen aurretik, besteak beste, Guggenheim museoa eta Donostiako Zinemaldian lan egin izan dut. Hirurek lotura handia dute, guztietan kulturaren kudeaketa egin behar dudalako. (...) Egin beharreko lan garrantzitsuena institutua martxan ipintzea da. Aranzadiko jakintsuek zerbait arina eta profesionala gura zuten, proiektua aurrera ateratzeko. Nere ardura da Aranzadi ezagutzera ematea”

**MIKEL ETXAGIBEL**  
ARRASATE IRRATIA/04-06-01

## HERRITARRENBERBAK/ Amaia Martiartu



### Seattle-etik Arrasatera

Aupa, jende, ze moduz? Honezkerok hilabete pasau da honuntza etorri ginenetik eta berri haundirik ez. Heldu eta egun pare batera kasualidadez Seattle-eko Euskal Etxekoek *Spring dinner* (udaberriko afarixa) delakua antolatu zaien.

Holako okasietan Vancouver-eko kanadiar-euskaldunak baita agerketan die eta zapatu hartan nire adineko anaia pare bat mahai berberian tokau jakuen. Ardo gorri naparraz berotu ostien, hantxe hasi jation “benetako” euskaldunei buruz adarra jotzen. Tori konbersazinua:

Kanadiar number 1, kirol kazetarixa Vancouver-eko aldizkari batien: “Bai, fan nitzan Euskal Herrira udan, badakizu Bizkai aldera (aitxa Lekeitixon jaixoa), eta klaro honeik bilbotarrok Athleticen partidu batera eruen ninduten. Hara nire moskeua futbol zelaira sartu baino lehen norbaittek supositorio itxura-

ko pakete bat emuten dostan. Eta sartzen zan “bitxo” danak albalaz batutako bokadillo bardinaz. Eta danok aurrera ardixak letxe. Hasten da partidua, heltzen da deskantsua eta 30 milla pertsonen bokadillua atara ta patata tortilla jatera. Futbol zelai

**“Heltzen da partiduko deskantsua eta 30 milla pertsonen bokadillua atara ta danak patata tortilla jatera”**

guztixa! 30.000 pertsona! Eta neu nire artien, bainan honek danok kaskauta daz ala ze hos...Piixiii!!!”

Kanadiar number 2, loterixako langillie, eta jatun galanta: “... Neu baitte Bizkaia aldetik *benetako*

euskaldunekin poteau ostien restaurantera. Menua eskatu eta afaldu. Hurrenguen barrero menua eskatu eta afaldu. Hirugarren gauien restaurantera sartu eta esan nutzan kamareriai: txo ez zaidak menurik atara, buruz jakixonat-eta”. Baina, baina, ez zare inoiz aburriruten beti bardiña jaten?”

Moraleja: “El último (vasco/a) que rie, rie mejor y es canadiense”. Ondo izan.

# Arrasate

Otalora Lizentziaduna 31  
20500 ARRASATE  
Tel.: 943 71 25 11  
Faxa: 943 71 23 89  
Posta-e: arrasatepress@goiena.com

ZUZENDARIA  
Iker Barandiaran

ERREDAKZIOA  
Ubane Madera  
Xabier Urzelai

MAKETAZIOA  
Alex Azkarate

ZUZENTZAILEA  
Sergio Azkarate

PUBLIZITATEA  
Arantzazu Lagunilla  
Izaskun Bolinaga  
Natali Martínez  
Imanol Elortza

ADMINISTRAZIOA  
Agurtzane Gáinzarain  
Ane Bereizbar  
Iratxe Bengoa

BANAKETA  
Marta Leturia

LEGE-GORDAILUA  
55-1124/88

ISSN  
0214-4654

TIRADA  
7.350 ale

ARRASATE PRESS / TXIRRITOLA • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako  
Kultura saila



Gipuzkoako  
Foru Aldundia



Arrasateko  
Udala



Aramaioko  
Udala

## ASTEABIHITZETAN

## Hizkuntza eskubideen alde protestan

Mondragon Unibertsitateko ikasle talde batek salaketa egin zuen egunean: euskarak ez duela dagokion tokia Arrasateko campusean. Egoera aspaldikoa dela salatu zuten, eta zuzendaritzak egoera konpontzeko ez duela ezer egiten gaineratu zuten. Ikasle talde horrek salatu zuen, era berean, klase batzuk espainolez hartu behar izaten dituztela, irakasleek ez dakitelako euskaraz. Protesta ekitaldia *Ikasleok euskaraz ikasteko eskubideen alde* lelopean egin zuten.

## Lanak egingo dituzte erlojuaren eraikinean

Arrasateko Udalak dagoeneko adjudikatu du erlojuaren eraikineko estalkia, fatxada eta instalazio orokorrak egokitzeko proiektua. Kudeatu SL enpresak egingo ditu lanok, eta 15.685 euroko aurrekontua aurkeztu dute.

Arrasateko Udalaren asmoa da Arrasateko hainbat talde, tartean Arrasate Musikal, eraikin horretara pasatzea. Talde horiek goiko solairuan egongo dira, eta beheko solairua Museo Industrialerako egokitzeko asmoa dute. Aldaketa horiek egin aurretik, baina, beharrezkoa da eraikinean hainbat berrikuntza egitea.

## Ardo dastatzea Kajoi tabernan

Kajoi tabernakoak Ardoaren Astean dabilta murgilduta. Sei egunez, zenbait upategitako ardoak dastatzeko eta ezagutzeko aukera izango da Kajoi tabernan. Urteko ardoak, onduak, erreserbakoak eta erreserba handikoak probatzeko aukera izango da bertan. Eguaztenetik gaur arte egunero 40 lagun inguru batu dira, eta Lan, Solaguen, Luis Alegre eta Viña Mayor upategitako ardoak probatu ahal izan dituzte. Esan digutenez, harrituta geratu dira Lan upategitako ardo onduak duen mailarekin.



## 'Eskuak Elkarri' antzezlanaren aurkezpena

Goikobalu abesbatzak *Eskuak Elkarri* antzezlan musikatua aurkeztu zuen joan den egubakoitzean. Antzezlanaren 11n, 12an eta 13an egingo dute Amaia Udal Antzokian. Apirilaren 7tik aurrera sarrerak salgai ipiniko dituzte Amaia Udal Antzokian, 19:00etatik 20:00etara.



## USTEAKUSTE/ Iker Barandiaran

## Udaberria ote?

**H**arrigarria da aspaldi honetan dagoen mobilizazio eta protesta ekimen kopurua. Halakoak egon beti egon dira, eta egongo ez balira, seinale txarra! Ezkortzat hartuko nauzue, baina zaila da denok gustura egotea, eta hala bada normalena da protesta egitea.

Ez dakit egunotan kalean eta errepedeetan ibili zare-

ten, baina jende asko dabil protestan, ugari!

Batetik, hauteskondeen burrundara baitan Herritarren Zerrendak hauteskondeetan esku hartzeko egiten duen aldarrikapena.

Bestetik, Zubillagako hiltegiaren alde egiten duten baserritarrak. Astean ibarreko errepedeak ia kolapsatu zituzten. Autobi-deak kaltetuko dituen


Eskoriatzako bizilagun taldea ere buru-belarri dabil lanean.

Eraikuntzako langileek ia hilabete bete dute greban, eta hainbat kale agerraldi egin dituzte. Badirudi arazo horrek luzera egingo duela. Nafarroako suhiltzaileak ere haserre daude...

Arrasaten bertan Udaltxeko langileak lanuzteak egiten hasi dira, eta gogor egiteko asmoa dute.

Ez dut uste udaberria erruduna izango denik!

## ASTEKOIRUDIA



## UDALETXKO LANGILEAK LANUZTEAK EGITEN DABILTA, LAN HITZARMENA ESKATZEKO

Udaletxeko langileak haserre daude, oraindik ere lan hitzarmena sinatu barik dutelako. Langile gehienek ELA eta LAB sindikatuek egin duten greba deialdiaren aldeko botoa eman dute, eta hainbat mobilizazio iragarri dituzte. Joan den martitzenean, 12:30etik 14:00etara lanuztea egin zuten,

eta gaurko, egubakoitza, ekimen bera egingo dute la iragarri du Enpresa Komiteak. Arazoa konpondu artean, ekainaren 11n, 15ean, 22an eta 29an, lanuzteak egingo dituzte, 10:00etatik 13:00etara. Horrez gain, langileek salatu dute Lakuntza alkateak eta Gobernu taldeak gai honekiko duen jarrera. //B.

CORAZON DE ENCINA  
EXTREMADURAKO ZENTRO KULTURALA

Astelehenetik ostiralera eguneko mezua, plater konbinatuak, arrazioak, alde zurretik eskatutako oilasko errea eta ogitartekoak.

Espezialitateak: olagarroa, txerri-belarriak eta txerri-masaila.

Guztiontzako zabalik!!

Araba etorbidea 3 Tel.: 943 79 11 75.

Aitor  
Belardenda

Osasuna eta elikadura

- Produktu dietetikoak
- Dieta pertsonalizatuak
- Aurpegi garbitzeak
- Masajista

Olarte 7 ARRASATE  
943 79 90 43


**KONTRATAK  
IRYROK S.L.  
ERAIKUNTZAK**

Meatzerreka 5 bis - posta-kutxa 246  
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 79 78 14  
ARRASATE



## PRESO BAT GARA BAT MUS TXAPELKETAKO IRABAZLEAK

Joan den egubakoitzean jokatu zuten Preso Bat Gara Bat Mus Txapelketako finala. Argazkian azaltzen diren Lur, Pin, Saul eta Tximu izan ziren finalistak. Lurrek preso dagoen *Kasko*-ren izenarekin jokatu zuen. Saul eta Tximu bikotearen izena, berriz, ez zen makala: *Salta-Praus*. Nor da *Salta* eta nor da *Praus*? Finalean Lur eta *Pin* nagusitu ziren, baina irabazitako dirua presoendako utzi zuten. Gauza bera egin zuten Saulek eta *Tximuk*. Txapelketan 20 bikotek hartu dute esku, eta txapelketaren izenematearen dirua, eta finalistek eman duten dirua presoek *Gara* egunkaria bidaltzeko erabiliko dute.



## ARIZMENDI IKASTOLAKO ABESBATZA ALEMANIAN IZAN BERRI DA

Alemania bertatik bertara ezagutzeko aukera izan dute Arizmendiko DBHko gaztetxoek. Guztira 45 ikasle eta 3 irakasle izan dira, Traben-Trarbach-eko Gymnasium abesbatzakoekin eta orkestrakoekin elkartrukean. Arizmendikoek Euskal Herriko kanta, dantza eta musika instrumentuen erakustaldia egin zuten han. Hiru emanaldi egin zituzten: eskolan, Enkirch-

eko elizan eta Irmenach-en, eta hirurek izan zuten arrakasta handia. Abesteaz gain, txalaparta, akordeoia, txistua eta panderoa jo zuten; eta, aurrekua, arin-arina eta fandangoa dantzatu zuten. Esan barik doa, kontzertuetan izan zirenak zur eta lur geratu zirela. Kontzertuez gain, Alemaniako hainbat hiri bisitatu zituzten: Traben-Trarbach, Trier, Mainz...



## IKUSI EGIN BEHAR 1947AN JAIO ZIRENEK ZELAKO MARTXA DUTEN!

Argazkia ikusita argi dago 1947ko kintoen bazkarian *Paquito el chocolatero*-k sekulako arrakasta izan zuela. Argazki hori bazkal ostean atera zuten, guztiak dantzan zebiltzanean. Eguerdi partean elkartu ziren 60-70 lagun Musakolako Ziar-Ola elkarteetan. Lehenengo, salda beroa hartu zuten, eta txikiteoan joan ziren gero. Bazkaltzeko ordua iritsi zenean elkarteetan batu ziren berriro, eta ederto bazkaldu eta gero jo eta ke ibili ziren dantzan. Esan digutenez, jendeak ez zuen bat ere presarik etxera erretiratzeko, eta seguru bat baino gehiago afaltzera geratu zela.

HIRIGINTZA/ Musakolako kirol-gunea

# Berritu eta eguneratu egingo dute Musakolako kirol-gunearen proiektua

UBANE MADERA

Tokiko Gobernu Batzarrean, besteak beste, Musakolako kirol-gunearen proiektua izan dute hizpide. Hain zuzen ere, 2001ean egindako proiektua egokitu beharra dagoela-eta, lan hori egiteko lehiaketa publikoa deitzea erabaki dute. Hortaz, aurrera doa proiektua.

Aspalditik dabil Arrasateko Udalak Musakolako kirol-gunea berri- tzeke asmoarekin. Helburua da herrian sakabanatuta dauden kirol instalazio guztiak Musakolan batzea eta dauden beharrei aurre egiteko instalazio berriak eraikitzea.

## BERRIKUNTZAK

Futbol zelaiak, atletismoko pista, errugbi zelaiak (atletismoko pistaren barruan) belodromoa, harmailak eta aldageletarako, biltegiak, kafetegirako... lokalak. Horixe guzti hori eraiki gura dute Musakolako kiroldegi inguruan.

Horrekin batera, Musakolako frontoiaren eta eraikin nagusiaren artean dauden instalazioak egokitzea ere gura dute. Eta saskibaloia, tenis pista, minibasket kantxa, urruneko agintadun automobilendako pista eta skate pista egin gura dituzte.

## BELODROMORIK EZ

Horixe zen hasierako proiektua, eta ia bere horretan utziko dute. Salbuespen bakarrarekin: ez dute



Proiektuaren helburua da herrian sakabanatuta dauden kirol instalazio guztiak Musakolan batzea.

belodromorik egingo. AUKEAko arduradun Andoni de Bedialaunetak esan digunez, ez dago belodromorako eskaerarik. Inguruko herrietan ere ez dutela erabiltzen esan diete. Gainera, Arrasaten ez da egiten mota horretako probarik eta belodromoa eraikitzea 1.200.000 euro baino gehiago kostatuko da. Horregatik erabaki du Udalak ez egitea.

Kontuak kontu, oraingo aste-ko Tokiko Gobernu Batzarrean

onartu egin du Musakolako kirol-gunearen proiektua eguneratzeko asistentzia teknikoak esleitzeko plegua. Esleipena egin eta gero, hiru hilabeteko epea eta 76.000 euroko aurrekontua dute bukatzeko. Horren ostean, proiektua behin betiko onartu beharko dute, eta gero esleitu-ko dituzte lanak. Horrek esan gura du proiektua aurrera doan arren, oraindik ez direla lanak egiten hasiko. Andoni de Bedia-

launetak esan digunez, datorren urtean hasiko dira, aurrean ez dago-eta astirik.

## DIPUTAZIOAREN LAGUNTZA

Horren harira, hil bukaeran, Batzar Nagusiek bilera egingo dute. Han erabaki behar dute Musakolako esparrua egiteko zenbateko laguntza ematen duten. Edozelan ere, zurrumurruak diote 1.500.000 euroko laguntza emango dutela.



## Herri eskolakoak irabazle, lehiaketan

Emakume Txokoak marrazki lehiaketa antolatu zuen, seigarren mailako ikasleekin, emakumeen eta gizonen arteko lan eta arduren banaketaren gainekoa. Herri eskolako, Mesedetako eta Arizmendiko ikasleek parte hartu zuten. Oraingo astean egin dute sari-banaketa. Horren arabera, Arrasate Herri Eskolako Oihane Pildainek eta Maialen Carmonak irabazi dute.

# Datu sozioekonomikoak eguneratzeko

U.M.

Udalak Arrasateren gaineko ikerketa sozioekonomikoa egin gura du. 1999an egin zuten azkena. Datuak eguneratzea da helburua. Ikerketa egiteko dirulaguntza eskatu diote Espainiako Enplegu Institutuari.

Aldiro egin ohi du Udalak herriaren gaineko ikerketa sozioekonomikoa. Eta azkena 1999an egin zuten, erabaki dute orain berria egitea eta datuak eguneratzea.

## INTERESEKO DATUAK

Datu mordoxka jasotzen ditu Udalak halako inkesta baten bitartez. Adibidez, populazio aktiboaren gaineko datuak: zertan dabilen lanean, non... Langileen migrazio-emigrazioaren gainekoak; langileen prestakuntza maila; langileen ezaugarriak eta enpresen egoera: zein profesional behar duten, kontratazio politika...

Horrez gainera, oraingo inkesta honetan, bereziki aztertuko dute



Ikerketa egiteko zenbait herritarri eta enpresari inkestak egingo dizkiete.

Arrasateko mugimendu migrazioa. Kontua da azken 15 urteotan populazioa galtzen dabilela Arrasate. Eta herritik joan direnak zergatik joan diren, nora... jakin gura du Udalak. Gero, zergatiak aztertu eta horri aurre egiteko zerbait egiterik dagoen ikusi gura du. Asmoa da populazioa

ez galtzea. Izan ere, azken 15 urteotan, batz bestea, 200 bat arrasatear joan dira urtero herritik: 1988an 26.231 biztanle zeuden Arrasaten, eta 2003an, 23.078 biztanle. Oro har, egoera sozioekonomikoan egon diren aldaketak kontuan hartuko ditu Udalak bere estrategiei gehitzeko.

## LABUR

### Domekan omenaldia 36ko gerran fusilatutakoei

Bigarren urtez, omenaldia egingo diete Espainiako gerran fusilatutakoei eta desagertutakoei. Omenaldi xumea izango da, baina desagertutakoen eta fusilatutakoen sende eta lagunak ez dute gertatutakoa ahaztu gura eta uste dute garrantzitsua dela urtero gogora ekartzea gertakari haiek. Oraingo honetan ere Laubiden elkartuko dira, lore eskaintza egiteko monolitoren aurrean. Hori 12:00etan izango da. Eta hori baino lehenago, 11:00etan, hain zuzen, haien izenean meza esango dute, San Juan parrokiaren.

### Umeendako jolas-gunea eta mendi irteera, asteburuan

Joan den asteburuan hasi zituzten Aste Berdearekin lotutako ekitaldiak. Aste barruan, berriz, bi berbaldi eta lantegiak egin dituzte. Eta Aste Berdearekin bukatzeko, bihar, umeendako jolas-gunea antolatuko dute Seberren. 11:00etatik 13:00etara puzgarriak izango dira eta 16:30etik 19:30era puzgarriak eta jolas birziklatuak. Eta domekan, ekosistema naturalak aztertzeko mendi irteera egingo dute: Arrasate-Azuela-Andra Mari Zuri-Bedoña-Arrasate ibilbidea egingo dute, Urtzi Mendizabalek gidatuta.

OSOKO BILKURA/ Astelehenean, ohiko osoko bilkura izan zen udaletxean

# la erabateko adostasuna izan zen osoko batzarrean

UBANE MADERA

Ordu erdi eskasean bukatu zuen maiatzari dagokion ohiko osoko bilkura Arrasateko udalbatzarrek. Izan ere, adostasuna izan zen nagusi alderdi politikoen artean. Gai batean izan ezik. Esan beharra dago gai gehienak tramitezkoak izan zirela.

Esaterako, etxebizitzetan igogailuak ipintzeko lanekin zerikusia duten lau puntu landu zituzten zinegotziek asteleheneko batzarrean.

Bestelakoan artean, Haur Hezkuntza berbagai izan zuten. Hala, Bedoñaben egin beharreko egoitzapen lanak egiteko beste pauso bat eman zuten. Horren hariara, Ignacio Lakuntza alkateak, besteak beste, adierazi zuen euren asmoa dela datorren urtean abiaraztea haurtzaindegiaren zerbitzu publikoa, eta presaka dabilzala gai horrekin.

Bestalde, dirulaguntzen gaineko araudi berria egin dutela-eta, hori onartzeko proposatu zioten udalbatzarriari. Alkateak esplikatu zuenez, dirulaguntzak banatzeko orain arteko araudia nahaspilatsu samarra zen. Hori konpontzeko asmoarekin eta eztabaida luzeak izan ostean egin dute araudi berria eta astelehenean onepena eman zion udalbatzarrek. Horren arabera, besteak beste, irizpideak ezarriko dituzte alderdi politikoen, sindikatuen eta halakoek dirulaguntzak ez eskatzeko. Izan ere, halakoek laguntzen esparru propioa izaten dute.

Ordenantza berria jendaurrean dago orain, alegaziorik balego, horiek jasotzeko.

## PRESOEN ALDEKO MOZIOA

Bukatzeko, mozio bat ere landu zuten asteleheneko osoko bilkuran. Horrek piztu zuen zinego-



Bi zinegotzi izan ezik, gainerako guztiak izan ziren asteleheneko batzarrean.

tzien arteko eztabaida bakarra. Hain justu ere, Jon Agirre, Gabriel Urizar eta Jesus Mari Zabartè preso arrasatearren gaineko mozioa aurkeztu zuen Etxerat elkarteak udaletxean, baina bozeramaileen batzordeak ez zuen onartu. Haren orde, beste bat adostu zuten EAJ, EA eta Ezker Batua alderdiek. Eta horixe eztabaidatu zuten asteleheneko batzarrean. Oro har, giza eskubideak errespetatzeko eskatu dute mozioan, eta legeak esaten duena betetzeko. Besteak beste, euskal presoak Euskal Herrira gerturatzeko eskatu zuten. PSE-EE alderdiaren kontrako botoa jaso zuen puntu horrek. Paco Garciaren

*Hauteslekuetako egitura beste modu batean antolatzeko eskatu zuen EAko ordezkariak*

esanetan, besteak beste, preso senideek sekula ez dietelako errespeturik erakutsi erasoak jasan dituzten gainerakoei. Itziar Lamarainek, berriz, PPren izenean esan zuen ETAK eta euren lagunek ere ez dutela betetzen legeak esaten duena, eta jakinarazi zuen ez zutela bozketan parte hartuko. Hala, EAJren, EAren, Ezker Batuaren eta Aralarren aldeko botoekin onartu zuten mozioa.

## HAUTESKUNDEEKIN LOTUTAKO ESKAERA

Horren ostean, datozen hauteskundeekin lotutako pare bat eskaera egin zituzten. Batetik, EAko Jabier Nafarratek esan zuen herritar bat baino gehiago galduta ibiltzen dela bozkatzeko orduan. Hori dela eta, hauteslekuetako egitura beste modu batean antolatzeko eskatu zuen. PSE-EEko Paco Garciak, berriz, eskatu zien gainerako alderdiei hauteskundeekin lotutako lekuak erabil ditzatela, ingurumena errespetatzeko; bereziki orain, Udala Agenda 21 egitasmoaren parte dela kontuan hartuta.

# Ezker abertzaleko gazteriak 25. urteurrena ospatuko du bihar

ARRASATE PRESS

Ezker abertzaleko gazte mugimenduak 25 urte bete ditu. Hori ospatzeko ekitaldiak antolatuko dituzte Arrasaten. Besteak beste, bihar, zapatua, 19:00etan ekitaldia izango da gaztetxean; tartean bideo eta argazki emanaldia egingo dute.

Eguerdian hasiko dituzte ekitaldiak. 13:00etan Seber Altuben omenaldia egingo dute. Horren ostean, txikiteoa egingo dute eta bazkaria ondoren. Besteak beste, 25

urteotan gazte taldeetan ibilitakoak elkartuko dira Arrasaten.

Edozelan ere, lehen esandako moduan, ekitaldi nagusia arratsaldean izango da, 19:00etan, gaztetxean. Berbaldia egingo dute lehenengo eta gero azken urteotako argazki eta bideo erakusketa. Horrekin batera, Irati tabernan pegatina erakusketa ipiniko dute, eta hiru egunean egongo da ikusgai.


## SALBUESPEN EGOERA

Urteurrena aprobetxatuz, gazteek salatu dute 25 urteotan salbuessen

egoeran bizi izan direla. Makina bat atxiloketa, jarraipen, isun... jasan behar izan dutela urteotan. Baita ilegalizazioak ere; Jarraipen eta Haikaren kasuak, adibidez. Edozelan ere, aurrera egingo dutela iragarri dute, "Euskal Herri aske eta sozialista bat ikusteko gogo bizia dutelako" eta, oro har, "gazteak izanda ausardia eta borrokarako grina euren bertute" direlako. Besteak beste diote elkarte delatza ezkertiarra, abertzalea, eredu sozialistan berritzailea, iraultzailea eta homofobiaren eta arrazakeriaren aurkakoa.



Arrasateko euskalgintza



# Arrasateko euskalgintzaren lan ildoen nondik norakoak

ARRASATEKO EUSKALGINTZA

Arrasateko euskalgintzak hainbat lan-arlo abiarazi ditu Plan Estrategikoan adostutako helburuak betetzeko asmoarekin. Horietako batek ikastetxeetako motibazio saioak indartu eta koordinatzea du helburu.

Hain justu ere, ikasleek euskarekiko pentsaera, jarrera eta jokaera baikorra eta aktiboa izan dezaten lortzea da azken helburua. Izan ere, badago zereginik arlo horretan, Kike Amonarrizek esan bezala: "Esan behar dut kezkatzeko arrazoiak ere baditugula, eta egia esan behar baldin badut, Arrasaten emandako hitzaldietatik kezkatuta atera nintzen, ez bainuen espero euskaratik hain urrun sentitzen zen horren multzo zabala aurkitzerik. Arrasaten, ordea, ustekabean, euskarari ateak erabat itxi dizkion gazte multzo handi batekin egin nuen topo. Ez dut uste gehiengoaz zuzenik, baina asko ziren. Eta gehien harritu eta kezkatu ninduen izan zen hizkuntzarekiko urruntasun hori zein modu naturalean eta barneratuan adierazten zuten: "Es que el euskera no nos gusta", "nos da igual", "no queremos hablar en vasco".

Lantaldea 2003ko otsailean jarri zen abian, eta honako lan hauek egin ditu: motibazioaren inguruan, irakasleentzat eguneroko lanean lagungarri izango den gidaliburua sortu dute eta ikastetxe guztietan banatu, CDan. Bestalde, ikastetxe bakoitzak bere saioak antolatzen jarraituko du. Baina horietaz gain, urtean hiruzpalau saio antolatuko dituzte

ikastetxe guztiak elkarrekin. Orain artean, TXAT topaketa antolatu zuten otsailaren 26an, DBHko 4. mailako ikasleentzat; eta Kike Amonarrizen hitzaldia gaztetxean, maiatzaren 13an, DBHko 3. mailakoentzat.

Asko dago egiteko, eta lanean jarraitzeko gogoia erakutsi du taldeak. Besteak beste, urte bukaerara bitartean DBHko 1. zikloko ikasleekin eta HH eta LHkoekin zer egin aztertuko dute. Kike Amonarrizek zera esan zuen: "Eta etorkizunean, hizkuntza normalizazio prozesua eta herri mailako integrazio soziala indartzeko, gazte multzo honetan zer gertatu den eta zer ari den gertatzen jakitea ezinbestekoa da. Eta garbi dago aurrera egiteko, gure estrategiak asko aldatu behar ditugula eta giza multzo horiekiko komunikazioa berreskuratu. Sinestezina baita horren gertu egonda, zein urrutiti bizi garen elkarrengandik".

Aurre-matrikulazio garaian gaude eta Arrasateko Euskalgintzak dei egin nahi die Arrasateko gazteei, orain arteko bideari jarraiki, euskal ereduari matrikula daitezen, euskaraz ikasi eta lan munduari euskaraz ekiteko prestatzeko. Orain arte euskaraz; aurreantzean zergatik ez? Matrikulatu euskal ereduari.

*Ikasleek euskararekiko pentsaera, jarrera eta jokaera baikorra izatea da helburua*

*Euskalgintzak dei egin die Arrasateko gazteei euskal ereduari matrikula daitezen*

## BEHEKODENDATIK

## Jon Goikolea

## GOIHATA ITZULPEN ENPRESA

XABIER URZELAI

Oin dala hamaika urte sortu euen Jon Goikolea eta bere emaztieki GoiHata enpresie. Australian bost urte egin eta gero, Japonera juen eta han ezagutu euen Jonek egun bere emaztieki dana. Bederatzi urte Japonen egin eta gero Mondraguerako bidie hartu euen, japonesa ondo ikasitte, baiñe.

**Ze falta jako Mondragueri?**

Niagarako kataratak eskaketie askotxo izengo da, ala?

**Eta, ze dauko ona?**

Mondrague Euskadin dauela.

**Ze falta jatzu zeuri?**

Astixe.

**Eta, ze dauketzu sobran?**

Eginbiherrak.

**Pelikula bat. Liburu bat.**

**Musika talde bat.**

*Secretos del corazón / Lagun izoztua / Oskorri.*

**Momentu honetan nora juengo zitzake gustora?**

Astebete egingo neuke gustora Piriniuetako mendixetan.

**Egitten dozun etxeko lan gorrotagarrixena.**

Etxeko lan gorrotagarrixena plantxie da, baiñe horregaittik ez dot lan hori egitten, gorrotagarrixen dalako.

**Tranpan ibilttektan norbaittekin, zeinekin?**

Holakuek egitteko balixo egin biher!!!

**Zure lanerako ezinbestekue dan gauza bat.**

Ordenadorie eta hiztegi elektronikuek.

**Denbora librien ze egitten dozu?**

Kirol apur bat, eta leidu.

**Kapritxo bat.**


Urte sabatiko bat hartzie.

**Aste bukaerie pasetako leku apropos bat.**

Eguraldi ona badau, inguruko mendixetan ondo.

**Ze leiduko zeuke gustora ARRASATE PRESSen?**

Mondraguen euskerazko egunkarixek *Diario Vasco* baiñe gehixau saltzen diela.



*“Neure ustez txiniek inddar haundixe hartuko dau, baiñe ezin dogu ahaztu inglesa”*

**Ze lan egitten dozue GoiHata enpresan?**

Itzulpen lanak egitten dittugu GoiHatan. Normalien, enpresetik etorten jaku lan eskaera haundixena.

**Nundik dator zeuon enpresien izena?**

Neure abizenan lelengo letrak eta neure andrien abizena batute sortu geuen GoiHata.

**Zein da zeuon lanien gehixen itzultzen dozuen hizkuntzie?**

Japonesa.

**Lehen, inglesak eukin inportantzia haundixe. Oin, emuten dau Asiako hizkuntzak inddarra hartzen dabitzela, ala?**

Bai. Neure ustez txiniek indar

*“Momentu horretan nun nauen, hango hizkuntzie ikesten ahalegindduko nitzake”*

haundixe hartuko dau, baiñe ezin dogu ahaztu inglesa.

**Hizkuntzaren bat ikesi biherko bazeu, zein elegiduko zeuke?**

Momentu horretan nun nauen, hango hizkuntzie ikesten ahalegindduko nitzake. Izen be, azken baten, hori da etxekue zarella sentiduteko modu onena. Dana dala, bat esatekotan, arabie ikesiko neuke gustora.

**Zenbat hizkuntza dakizu?**

Lau.

**Zeintzuk?**

Euskerie, española, inglesa eta japonesa.

**Eta, andriekin ze hizkuntzatan egitten dozu berba?**

Normalien, japonesez.

## NIREBIDAIAHURA/ Iker Sanpedro

Lituania, Polonia, Eslovakia, Txekiar Errepublika / 2004an

Ikerrek bost hilabete egin ditu Lituaniar, ingeniaritzako proiektua egiten, Erasmus bekari esker. Urrian joan zen Lituaniara, eta martxoan etorri zen bueltan: “Egia esan, ez nintzen urteko sasoi aproposenean joan Lituaniara. Abendura arte ez zuen hotz handirik egin, baina urtarrilean eta otsailean ez zen giro”. Hango bizilagunak ere eguraldiaren parekoak ei dira: “Orokorrean nahiko hotzak dira, lehenengo hartu-emanean bai, behintzat. Gogoratzen naiz gu geunden etxean lituaniarrek euren geletan egiten zutela guztia: bazkaldu, afaldu... Eta, gainontzekoak bazkalostean edo afalostean tertulian geratzen ginen. Gero, baina, konfiantza hartzen dute nean jende jatorra da”.

Eguraldi horrek eguneroko bizitzan eragin handia du: “Goizetan unibertsitatera joaten nintzen proiektuan lan egitera. Bospasei ordu egiten nituen unibertsitatean, eta gero, trago batzuk hartzen nituen lasai asko lagunekin. Astean behin edo diskotekatara joaten ginen, baina goizeko ordu bietarako jendea etxera erretiraten zen. Gainera, ohitura handia daukate jaiak eta horrelakoak etxean egiteko”.

Eguraldiak askorik laguntzen ez bazuen ere, Iker ahalegindu zen inguruak ezagutzen: “Ni Kaunas-en izan nintzen, eta, besteak beste, Vilnius eta Klaipeda bisitatu nituen. Vilnius Lituaniako hiriburua da, eta igartzen da kanpoko herrialdeen eragina duela; eraikinak, adibidez, gainontzeko lekuetan baino modernoagoak dira. Hiri nahiko turistikoa da, eta baita polita ere; kosmopolita, esango nuke, leku askotako jendea ikus daitekeelako bertan. Klaipeda, berriz, kostaldean dago. Kostaldea ere polita da, baina ni joan nintzenez elurtuta zegoen dena, eta han ez zen giro.

Datorren astean Lituaniako ikasketak amaitu eta Europako hainbat herrialdetan zehar egindako bidaiaren berri emango digu Iker Sanpedrok.

XABIER URZELAI



Rumsiskis-en egindako Udaberri Jaian ateratako argazkia.

## Herrialde berriak bisitatu dituzu?

Zure bidaiak kontatzeko prest zaude?  
Anima zaitetz, zure abenturak gustura irakurriko ditugu eta!

Deitu 943 71 25 11 telefonora.





ERRUGBIA

# Nazioarteko Zazpinako VI. Txapelketa eta Garagardoaren Jaia, asteburuan

Gaur arratsaldean irekiko dute Erdiko Plazan egongo den karpa (19:00); errugbi txapelketa, berriz, bihar arratsaldean jokatuko dute

XABIER URZELAI

Aruten ere giro paregabea izango da ekaineko lehenengo asteburuan. Eta, ez eguraldiak lagunduko duelako, Arrasateko Errugbi Taldeak asteburua girotuko duelako baizik. Erdiko Plazan Garagardoaren Jaia eta Atxabalpen Nazioarteko Zazpinako Errugbi Txapelketa izango dira.

Garagardoaren Jaiari esker garagardo ederraz gozatzeko aukera izango da gaur arratsaldetik domekara arte. Baina garagardoa ez da izango Erdiko Plazan egongo den karpan eskainiko duten gauza bakarra; jaki alemaniarak dastatzeko aukera ere egongo da-eta, bai gaur eta baita bihar ere. Gainera, gaur gauean musika talde batek karpako giroa bertzen lagunduko du. Bihar, berriz, eguerdian irekiko dute karpa eta 14:00etan herri bazkaria izango da. Nazioarteko Zazpinako Txapelketa jokatu eta gero, sari bana-keta egingo dute 20:30ean, eta herri afaria egingo dute gero. Gauean, berriz, Durangoko Luartz taldeak kontzertua egingo du.

### HAMABI TALDE ATXABALPEN

Nazioarteko Errugbi Txapelketan hamabi taldek hartuko dute esku. Txapelketa zapatu arratsaldean izango da (15:00etatik 19:00etara arte), baina goizean ere egongo da errugbi partidurik, kadete mailako norgehiagokak izango dira-eta 11:30ean. Arratsaldean, esan bezala, zazpinako txapelketa jokatuko dute eta hamabi talde izango dira nor baino nor gehiago: Iparraldeko bi talde,

Errege Kopako irabazlea izan berri den Bera-Bera, Euskadiko zazpinako selekzioa, Durango, Hernani, Ordizia, Gaztedi, Zarautz, Eibar, Elorrio eta Arrasate taldeak izango dira Atxabalpen.

Inguruko taldeen artean badi-rudi Bera-Berak talde sendoa ekarriko duela, eta Iparraldeko bi taldeak ere ez dira makalak izango. Gainontzekoak aski ezagunak dira talde mondragoetarrendako, eta seguru parekotasun handia izango dela. Txapelketan aurrealdean ibiltzeko erabakigarria izango da Liga Txapelketa amaitu zutenetik gaur arte taldeek egin duten lana. Arrasateko Liga luzea izan du, mondragoetarrek igoera fasea jokatu zutelako. Igoera fasea amaitu zutenetik gaur arte, baina, lagun arteko norgehiagoka bat baino ez dute jokatu, joan den astekoa.

Arrasateko jokalariek gura beste lan izango dute asteburuan. Batetik, Garagardoaren Jaia eta errugbi txapelketa behar den moduan antolatzen ahaleginduko dira. Eta, bestetik, arrasatearrak erakutsi gurako dute nahikoa maila badutela datorren denboraldian lehenengo mailan jokatzeke.

### BADAGO ZER OSPATU

Nahiz eta lan egin behar izan, etxe-koek aukera ezin hobea dute oraingo asteburuan Ligan lortu duten igoera ospatzeko. Mondragoeko taldea bosgarren postuan sailkatu da. Baina aurretik geratu diren talde batzuk ezin izan dira mailaz igo, horretarako beharrezkoa da eta gazte mailako talde bat izatea. Eta, Arrasateri eskaini diote lehen mailara igotzea. Arrasate



ARRASATE PRESS

Garagartzako zelaia ahaztu, eta behingoagatik fundamentuzko zelai batean jokatzeke aukera izango du Arrasatek, bihar.

*Hamabi taldek hartuko dute esku Nazioarteko Zazpinako Txapelketan*

Errugbi taldeko kide Joseba Maidaganek GOITBko *Harmailatik* saioan esandakoaren arabera, taldeak merezi du mailaz igotzea:

*Arrasate bosgarrena izan da Ligan, eta lehenengo mailan izango da datorren denboraldian*

“Aurreko urteetan taldea beti ibili da aurreko postuetan, eta aurtengo bosgarrenak izanda mailaz igoko gara. Zorte apur bat izan

*“Taldeak merezi du mailaz igotzea, azkeneko urteotan lehenengo postuetan izan da-eta”*

dugu, baina saria izan da gure-tako. Hori bai, taldeak esfortzu handia egin beharko du mailari eutsi gura badio”.



# URONDO

Elektrizitatea

- \* Elektragaiak
- \* Instalazioak
- \* Automatismoak
- \* Proiektuak
- \* Argiztapena
- \* Bobinaketak

Musakola auzoa 26. Kataide Industrialdea 5. Pabiloia. 214 posta - kutxa • ARRASATE  
Tel.: 943 79 78 15 / 943 77 10 42 Faxa: 943 77 14 76



AITOR LIZARRALDE

AGRko jokalariek kolpe gogorra jaso zuten domekan, euren ametsak esku artetik ihes egiten ziela ikusita.

## ESKUBALOIA

# "Makal ibili ginen defentsan, eta hortxe galdu genuen norgehiagoka"

AGR Arrasate Eskubaloi Taldeak ez du Euskadiko Mailara igotzerik lortu

XABIER URZELAI

**Arrasateko eskubaloi taldeak beste urtebete egin beharko du territorial mailan, domekan bi goleko aldeagatik galdu zuen-eta Corazonistasen kontra. Burumakur egin zuten denboraldiko agur-afaria, baina harro egoteko moduko denboraldia egin dute.**

AGR Arrasateri aurten ere zorreak bizkarra eman dio azken unean; eta, beste behin, mondragoetarrek ez dira batere gustura geratu epaileek egindako lanarekin. Hala ere, Arrasateko tal-

deak ez zuen domekan igoera fasean zehar izandako sendotasunik erakutsi, eta horregatik galdu zuten mondragoetarrek. Hori ere garbi dauka Jonan Ezkibel AGRko jokalaria: "Taldeak gol gehiegi jaso zituen. Lehenengo zatian 20 gol jasotzea ez da normala; defentsan ez ginen batere ondo ibili, eta horrek kalte handia egin zigun".

Euskadiko Mailara igotzeko aukera galduta, dagoeneko datorren urteari begira dago Jonan: "Egia da urte batetik bestera gure helburutik gero eta gertuago gertzen garela. Ea datorren urtean Euskadiko Mailara igotzea lor-

tzen dugun; oraingoz, hutsetik hasi beharko dugu lanean".

Joan den urtean gutxigatik geratu ziren igoera fasea jokatzeke aukera barik, eta aurten, Euskadiko Mailarako igoera lortzeko gertu ibili dira. Kolpe handiak biak, batez ere aurtengoa. Azken bi urteotan lana ondo egin badute ere, mondragoetarrek ez dute denboraldia gura moduan amaitu. Talde horrek ondo baino hobeto ezagutzen du kirolaren alde gazia; lanean berdin jarraituz gero lehenago edo geroago iritsiko da alde gozoa bizi izateko unea. Eta, lehenbailehen bada, hobeto.

## ATLETISMOA

### Jonathan Perez Durangon izango da bihar, Euskadiko Txapelketa Absolutuan

Jonathan Perez pertika jauzilari mondragoetarra Durangon izango da bihar, Euskadiko Txapelketa Absolutuan esku hartzen. Bestalde, Lander Errastik brontzea eskuratu zuen joan den astean Mendizorrotzan jokatu zen Gazte Mailako Euskadiko Txapelketan. Landerrek 3,40 metroko jauzia eginda eskuratu zuen hirugarren postua. Dagoeneko pertika berriarekin dabil Arrasateko atletak, eta horri esker laster hobetuko du bere marka.

## ZALDIBARARETOFUTBOLA

### EMAITZAK

Etixerat - Lasagabaster.....	0-1
Betrayer - Dribling.....	3-6
Saukelu Scream - AC Surcos.....	6-4
You Know! - Iritz Taberna.....	8-1

### PARTIDUAK

#### EKAINAK 6, DOMEKA

12:00 Dribling - You Know!
13:00: Lasagabaster - Saukelu Scream

### SAILKAPENA

A MULTZOA	P	J
1. Lasagabaster.....	6	3
2. Dribling.....	4	3
3. Etixerat.....	2	3
4. Betrayer.....	0	3

B MULTZOA	P	J
1. You Know!.....	6	3
2. Saukelu Scream.....	4	3
3. AC Surcos.....	2	3
4. Iritz Taberna.....	0	3

## DOMEKAN JOKATUKO DITUZTE FINALERDIAK

### ZALDIBARKO TXAPELKETAKO JOKALARI ONENAK

Zaldibarko antolatzaileek dagoeneko erabaki dute nortzuk diren txapelketan zehar maila onena erakutsi duten jokalaria: Egoitz Zuazubiskar (Etixerat), Iñigo Garate (AT Celaya), Jorge Conde (Lasagabaster), Asier Manso (Saukelu Scream) eta Jose Bermejo (Dream Team). Joko garbiena erakutsi duen taldea, berriz, Oñatiko Aloña Taberna izan da, eta antolatzaileek hori saritu gura izan dute. Horrez gain, orain dela hilabete gutxi areto futboleko jokatzeko zebilela hil zen Francisco Lafuenteren omenez oroigarria egin dute antolatzaileek, Franciscok urte askoan jokatu zuen-eta Zaldibarko Txapelketan.

### JOAN DEN ASTEKO PARTIDUETAN TENTSIO HANDIA

Joan den astean jokatu zuten hirugarren faseko azken jardunaldia, eta finalerdietara sailkatzeko aukerak zituzten taldeen arteko norgehiagokak tentsio handikoak izan ziren. Etixeraten eta Lasagabasteren arteko partidua adibide ona da: Etixeratek ezin izan zuen partidua jokatzeko jarraitu, lau jokalarik baino ez zirelako kantxan geratu. Lehenengo, jokalariek batek min hartu zuen, eta gero, epaileek bi jokalarik kanporatu zituen epaileari irain egiteagatik. Jokalarietako batek lau partiduko zigorra bete beharko du, eta besteak partiduko zigorra.

## FUTBOLA

# "Hirugarren mailara igotzeko gauza asko behar dira"

Datorren urtean ere Josu Zubia izango da Mondrako entrenatzailea; Arrasateko futbol taldeak seigarren postuan amaitu du aurtengo denboraldia

XABIER URZELAI

**Mondrak eguaztenean egin zuen denboraldiko azken entrenamendua, eta talde mondragoetarra oporretan da dagoeneko. Deskantsua hartuko ez dutenak zuzendaritzakoak dira, datorren urteari begira talde sendoa osatzeko egin behar dute-eta lan.**

Datorren urteari begira gauza bat da ziurra: Josu Zubia izango da Mondraren aulkian. Badirudi Nicasio Galanek, Mondrako bigarren entrenatzaileak, ez duela jarraituko, eta Zubiari lagundu-

ko dion bigarren entrenatzailearen bila dabil zuzendaritza. Aurten taldeko masajista izan den Iker Sarabiak ere taldean jarraituko du. Datorren urtean, baina, prestatzaile fisikoaren ardura hartuko du.

Jokalariei dagokienez, ikusi egin behar Ruben Ruedak zer erabakitzen duen; oraindik goiz da taldeko kapitaina erretiratzeko. Gainera, Josu Zubiak ez du aldaketa handirik gura: "Datorren urteari begira jokalariek batzuek ez dute jarraituko, eta gazte mailatik jokalariren bat edo beste etorriko da". Horrez gain, denboraldi polita egin duten jokalarien gai-

nean ere galdetu diogu Mondrako entrenatzaileari: "Badakigu Jon Muruamendiaren atzetik hainbat talde dabiltzala. Nik ezer gutxi esan dezaket; oso jokalarik garrantzitsua da taldearendako, oso maila ona erakutsi duelako. Erabakia, baina, berea da".

Mondrako zuzendaritzak hirugarren maila du helburu. Entrenatzaileak ez dio helburu horri uko egiten, baina gauza batzuk oso argi ditu: "Hirugarren mailara igotzea askok uste dutena baino zailagoa da. Datorren urtean, maila horretatik jaitsi berri diren Pasajes eta UPV izango dira preferente mailan.

Horrez gain, ikusi egin behar Beriok zer egiten duen; Zarautz ere gurekin egongo da. Oso talde sendoak dira, maila oneko jokalariek dituzte, eta Mondrak baino diru gehiago daukate. Hori guztia kontuan izan behar da gure helburua zein den esaterakoan".

Josuk, baina, argi dauka mailaz igotzeko zer egin behar duten: "Joan den urtean oso ondo hasi ginen, eta ondo hastea behar-beharrezkoa da. Baina ondo hastea ez da nahikoa, garrantzitsua erregularra izatea da-eta. Aurten oso bolada txarra izan dugu; zazpi norgehiagoka galdu genituen segidan, eta argi dago-

ena da horrelako bolada txar bat izanez gero ez dagoela ezer egiterik. Hori bai, helburu guztien gaintik egin behar dugun lehenengo gauza da mailari eusteko beharrezkoak diren 45 puntuak eskuratu".

Mondrako jokalariek jai izango dute uztaile arte. Hilabete horretan hainbat entrenamendu egingo dituzte eta abuztuaren 16an edo 17an itzuliko dira lanera. Datorren denboraldia irail hasieran hasiko da. Ondo hasteak daukan garrantzia kontuan hartuta Josu Zubiak ez du gura ezustekorik, eta lau asteko aurre-denboraldia egin gurako luke.

# Arrasateko Judo Taldeak sei domina eskuratu zituen Andorran

XABIER URZELAI

Arrasateko Judo Taldeak joan den asteburuan egin zuen lehenengo irteera Andorrara. Eta, irteera horrek emaitza ezin hobeak eman ditu, arrasatearrek sei domina ekarri dituzte-eta. Urrezko hiru domina, zilarrezko bi eta brontzezko bat.

Arrasate Judo Taldeko 18 neska-mutiko Andorran izan ziren joan den asteburuan. Gurasoekin batera joan ziren Pirinioetara, eta Andorrako Judo Txapelketan esku hartzeaz gain, printzerria bisitatzeko aprobetxatu zuten.

## POZIK EGOTEKO MODUKO LANA

Arrasateko judoek infantil, alebin eta gazte mailetan hartu

zuten esku, eta, besteak beste, Andorrako, Kataluniako eta Euskal Herriko beste talde batzuen kontra neurtu zituzten indarrak. Arrasate Eibarko taldearen batera joan zen Andorrara.

## SEI DOMINA EKARRI DITUZTE

Andorrara joandako 18 gazte arrasatearrek lan bikaina egin zuten, eta guztien artean sei gazte nabarmendu ziren: Enara Belokik, Igor Fernandezek eta Cristian Serranok urrezko domina eskuratu zuten. Maialen Carmonak eta Eva Abuinek, berriz, zilarrezko domina bana ekarri zuten; eta Mikel Velascok brontzezko domina. Emaitza horiek lortuta ez da harritzekoa argazkian azaltzen den Julio Gallego Arrasateko entrenatzailea pozik egotea.

## DESKANTSU BARIK

Arrasateko Judo Taldeko gazteek ez dute deskantsatzeko denbora luzerik izango, oraingo asteburuan ere beste txapelketa baten hartuko dute-eta esku. Lerro hauek idazteko orduan, baina, taldeko zuzendaritzakoek oraindik ez zekiten Madrilgo Txapelketa batera joan edo Euskal Herrian izango den beste txapelketa batean parte hartu.



ARRASATEKO JUDO TALDEA

Andorran ateratako Arrasateko Judo Taldearen argazkia.

## FOTOKIROLA



## 42 arrasatear Hiru Handiak mendi martxan

Gaur gauean (00:00, Zalduondon) hasiko da XIV. Hiru Handiak mendi martxa, eta 42 mondragoetar izango dira proban esku hartzen. Aizkorrira, Anbotora eta Gorbeiara igo eta gero, Otxandion amaituko dute proba, zapatu gauean. Tartean, mendizaleek 100 kilometro egin beharko dituzte oinez. Proba lasai asko egin gura duenak argazkiak egiteko aprobetxa dezake. Goiko argazkia Anboton atera zuen Joseba Mikel Grajales gas-taitzarrak, eta argazki lehiaketako saria irabazi zuen. /X.U.

# arrasate musikal

# AM

**Matrikulazio epea zabalik:**

**Maiatzaren 18tik**

**ekainaren 18ra arte.**

**Arratsaldeko 5etatik 8etara.**

**Berritasunak:**

- Gaita

- Harmonia modernoa

4 urtetik aurrera.

Helduentzako eskolak.



## ELKARRIZKETA

RIKARDO AZKARGORTA/MARGOLARIA

*“Nire kontu ikasi dut: liburuak irakurtzen, erakusketak ikusten...”*

IKER BARANDIARAN

**R**ikardo Azkargorta margolari bergararrak erakusketa ipini du Arrasateko Arregi galerian. Margolari horrek ibilbide luzea egin du, eta hamasei lan batu ditu erakusketa horretan. Ekainaren 20ra arte ikusgai egongo da.

**Txikitatik izan duzu marrazteko zaletasuna?**

Bai, oso txikitatik. Horrekin lotuta, aita ere, Fernando Azkargorta, margolaria zen, eta horrek ere izango zuen eragina, seguruenik.

**Eta noiz hasi zinen margolanak egiten?**

18 urterekin serioago hasi nintzen eta olioak margotzeki ekin nion. Beste jauzi garrantzitsu bat 26 urterekin egin nuen. Orduan, Bergararik kanpora irteten hasi nintzen, nire lanak erakustera.

**Non ikasi duzu edo zeinek?**

Batez ere, nire kontu ikasi dut. Etxean ikusitakoaz gain, etengabe horren gainean irakurtzen ibili naiz eta erakusketak ikusten. Adibidez, gaztetxotari sarri Madrilerajoa ten nintzen hango museoak ikustera, han senitarteko bat neukalako. Horrez gain, askoz geroago, Artelekun, Donostian, pare bat tailetan esku hartu nuen.

**Zein teknika dituzu gustuko?**


Hasieran, margolari gehientsuenak moduan, olioarekin hasi nintzen. Horren ostean, akrilikoak aukeratu nituen, eta pintura eta argazkiak uztartzen ibili nintzen. Aspaldian, berriz, esperimentatzen nabil; azalak eta ehundurak lantzen. Orain irudiak gehiago lantzen ditut. Argazkiak ateratzen ditut. Gero, argazki horiek eskaneatu egiten ditut, eta ordenagailuan landu. Hala ere, ordenagailuko lana ez dut fisikoki erabiltzen, probak egiteko bakarrik erabiltzen dut. Hori guztia kontuan hartuta, margotu egiten dut.

**Beraz, gustuko dituzu teknologia berriak lan egiteko?**

Bai. Ez ditut askorik erabiltzen, baina ordenagailua, adibidez, oso tresna erabilgarria da imajinatzen dituzun lanak zelan geldituko liratekeen ikusteko. Oharrak hartzeko koaderno moduan erabiltzen dut.

**Erakusketa askotan esku hartu duzula entzun dut.**

Bai, egia da. Bakarkakoak Donostian, Iruñean, Gasteizen, Bilbon, Madrilen eta beste leku batzuetan egin ditut. Horrez gain, taldeko erakusketak Argentinan, Japonian, Maltan... egin ditugu. Japoniakoa oso bitxia izan zen:



IKER BARANDIARAN

*“Lagun baten bitartez, Japonian taldekako hainbat margo erakusketa egin genituen”*

Bergarako margolari batzuek Japoniako artista bat ezagutu genuen, eta haren bitartez hamasei bat erakusketa egin genituen han. Oso esperientzia polita izan zen, errepikatze modukoa, eta oihartzun handia izan zuen.

**Baduzu lehiaketetan esku hartzeko ohiturarik?**

Gero eta gutxiago parte hartzen dut halakoetan. Aspaldi bai, joera handia nuen eta han eta hemen ibiltzen nintzen. Halako lehiaketa batzuei esker, gainera, hainbat museo nire lanak erosi zituzten: Alacantekoak, Iruñekoak, Avilakoak...

**Zein motibo margotzen dituzu aspaldi honetan?**

Arregi galerian ipini dudana erakusketarako paisaiak margo-

*“Azkenaldian paisaia monokromoak egiten nabil, oso detaile gutxirekin”*

tu ditut, baina ez ikuspegi tradizionalarekin. Paisaia horiei elementu batzuk kendu dizkiet, eta kontrasteak eragiten saiatu naiz. Horrez gain, margolan horiek kolore gutxi daukate, monokromoak dira eta oso detaile gutxi dituzte. Halako hamasei lan ipini ditut erakusketan, azkenaldian egiten nabilen sailekoa.

**Halako ibilbide luzea edukita, margotzeki esker ateratzen duzu bizimodua?**

Ez. Beste lanbide bat daukat, zorionez denbora laburra kentzen didana. Denbora asko ematen diot margotzeki, oso gustuko dut-eta. Horrez gain, tarteka, Bergarako Beart margolarien elkartean pintura eskolak ematen ditut.



ARRASATEKO MUSIKA ESKOLA

Arrasateko musikari askoren maisu izan da Arzamendi.

**Arrasateko Musika Eskolak Arzamendi omenduko du**

IKER BARANDIARAN/ARRASATE IRRATIA

**Joan den egubakoitzean hil zen Juanito Arzamendi. Askoren esanetan, gizon hori oso-oso garrantzitsua izan da Arrasateko musikagintzan, eta hark sortutako Arrasateko Musika Eskolak omendu egingo du.**

Joan den zapatuan egin zuten Arzamendiren aldeko hileta-elizkizuna San Juan Bataiatzailearen elizan. Jende asko joan zen, eta Musika Eskolak eta aspaldiko ikasleek omenaldia egin zioten: eliza barruan, *Maria Errauskin* eta *Agur Maria* abestu zituzten; eta sarreran, orkestrak *Agur Jaina* eta *Udala mendi* jo zituen; kantu guztiak omenduarenak.

Elizkizunean jazotakoa arrasatear horren musika ibilbidearen erakusle da. Bizi zen artean laudorioak eta kritikak jaso zituen arren, lan handia egin zuen herrian, eta erretiratu arren, musikagintzan jarraitu zuen.

**MUSIKA ZEN BERE GRINA**

Oso gaztetan bilakatu zen musika bere grina. Hura eta familia-lagun gehiago; horra hor, David anaia eta seme Eduardo, esaterako. Musika ikasketak egin zituen Francisco Escudero maisu ospetsuarekin eta Madrilerajoa jo zuen zuzendaritza ikastera. Handik Arrasatera bueltatu zen, Musika Banda zuzentzera. 1972an, Danok elkartearen laguntzarekin, Arrasateko Musika Eskola eratu zuen.

Arzamendirekin batera 21 urtean lan egindako Arrasateko Musika Eskolako irakasle Merteze Madinabeitiak ondo gogoratzen du: “Hasi ginenean, hura zuzendaria zen eta bederatzi andereño ginen. Oso gizon langilea zen eta musika asko maite zuen. Aste-roko eskolak harekin prestatzen genituen, asko arduratzen zen horretaz”. Are gehiago, Madinabeitiaren ustetan, “Arrasateko Musika Eskolako sustatzaile

nagusia izan da, herrian musikaren alde lan handien egin duena, hain zuzen”.

**ESKOLAK OMENDU EGIN GURA DU**

Musika Eskola aspalditik dago eraikin berriaren zain, eta bultzatzaile nagusia izan zenaren heriotzak eraikinaren izenaren gaineko hausnarketa piztu du. “Aspalditik gabiltza eraikin hori noiz egingo den zain, eta inoiz izen gainean berba egin dugu, baina ez behar hau ezustekoa izan da. Eskola berriari Arzamendi izena ipintzea oso aproposa dela uste dut”, azpimarratu zuen Madinabeitia irakasleak.

Proiektu hori zehaztu artean, Musika Eskolak San Juanetako Monterongo kontzertuan minutu bateko isilunea egingo du, kontzertua berari eskainiko dio eta omendutakoaren hainbat pieza joko ditu. Aurrerantzean ere beste zerbaitekin egin gura dute.

Berarekin hartu-eman handia izan zuen Luis Sagasta Madinabeitia, 14 urtean Musika Eskolako presidente izan zelako. “Lehenagotik ezagutu nuen. Txikitari, pianoa jotzen erakutsi zidan bere etxean, musutruk. Oso gizon ona eta langilea zen. Espainiako Estatuko lehenengo gazte orkestra sortu zuen, eta herriko musikari guztien aita izan da. Euskal Herrian musikari oso ezaguna zen. Berak hiru maisu miresten zituen: Bandako lehenengo zuzendari Justo Amu narriz eta Francisco Alvarez Zapata eta Francisco Escudero maisuak”.

*Besteak beste, Espainiako Estatuko lehen gazte orkestra sortu zuen arrasatearrak*

GUREGAIK/ HOMOSEXUALITATEA HIZPIDE

# 'Maitatzeko berdinak' izeneko erakusketa ipini dute gaztetxean

IKER BARANDIARAN

**Udaleko Sexologia Zerbitzuak Maitatzeko berdinak izeneko erakusketa ipini du gaztetxean, ekainaren 20ra arte. Gehitu taldeak egin du, eta beste sexualitate eredu batzuk ezagutzera eman gura ditu.**

Ekainaren 28a gayen, lesbianen eta transexualen nazioarteko eguna da. Horregatik, gizarteko talde horien gainean herrian informazioa eta kontzientzia zabaltzeko asmoz, Udaleko Sexologia Zerbitzuak ekimen hori bultzatu du. Sexologia Zerbitzua Gehiturekin (Euskal Herriko lesbiana eta gayen elkarte) harremanetan jarri da, eta homosexualitatearen gaineko erakusketa ekarri dute herrira.

Ekainaren 2tik 20ra bitartean erakusketa hori gaztetxean izango da. Arratsaldero zabalik egoten da gaztetxea, iluntzera arte. Ekainaren 20tik 30era, berriz, Monterronera eramango dute. 18:00etatik 20:00etara bitartean zabalik egongo da.

*Maitatzeko berdinak* gay eta lesbianen bikoteen argazkiz osatuta dago. Guztira, hogeitaz argazki batu dituzte, eta argazkietan agertzen diren gazteek harreman



Estereotipotutako bikoteez gain, beste eredu batzuk erakutsi gura dituzte.

homosexualen gaineko normaltasuna aldarrikatu gura dute.

**BESTE ERREALITATE BATZUK ERAKUTSI**  
Antolatzaileen esanetan, erakusketa horren helburua da gizarteko estereotipoetatik kanpo dauden errealitateak erakustea. Sexologiako Zerbitzuko Larraitz Arandoren hitzetan, "badirudi homosexualitatearen gaineko diskurtsua aldatu dela, eta gayak eta

lesbianak onartzen ditugula, baina oraindik bide luzea egin beharra dago. Gauzak ez dira horrenbeste aldatu".

Antolatzaileek erabaki zuten erakusketa bi lekutara eramatea, jende gehiagok ikus dezan eta mezua herritar askotara heldadin. Hain zuzen ere, oraindik guztiz normalizatu barik dauzkagun errealitate horien hausnarketa egitera gonbidatu, eta

*Helburua da gizarteko bikote estereotipoetatik kanpoko beste ereduak erakustea*

*Euskal Herriko lesbiana eta gayen elkartearen laguntzarekin ipini dute erakusketa*

posible bada, koadrilan eztabaizatzeko gaia ipini".

**SAN JUANETAN EKINTZA GEHIAGO**

Sexologia Zerbitzuak San Juanetan beste ekintza batzuk antolatu gura ditu: Adierazpen sentzualen adierazpena izeneko ekimena egingo dute, eta horren baitan sabel-dantza, afro-brasil-darra eta garaikidea uztartuko dituzte.

**TXATXILIPURDIREKIN, UZTAILEAN, UDALEKUETARA!**

Urtero moduan, aurten Txatxilipurdik uztaileko udaleku itxien eskaintza zabala egin du. Dagoeneko, Beintzako udalekuak itxi dituzte; eta Oriokoetan hirugarren txanda bat egin dute, beste biak bete direlako. Horrez gain, oraindik Kantabriara joateko aukera ere badago. Bestalde, aurten, lehenengo aldiz, gaztetxoendako bertso udalekuak egingo dituzte. Guzti horiez gain, jakina, uztailearen 2tik 23ra Arrasaten bertan udaleku irekiak izango dira.

**EUSKAL HERRIA ZUZENEAN JAIALDIAN LAGUNTZEKO**

Topagunearen Gazte Sailak Euskal Herria Zuzenean jaialdian laguntzeko deialdia egin du. Jaialdia uztailearen 2an, 3an eta 4an egingo dute, eta interesatuek AEDra jo beharko dute izena ematera.

Laguntzera joan gura dutenek hiru aukera izango dituzte: ekainaren 28tik uztailearen 4ra muntatze lanak egin eta jaialdian esku hartu; uztailearen 2tik 7ra jaialdian esku hartu eta desmuntatze lanak egin; eta uztailearen 2tik 4ra jaialdian lane egin.

Izenematea bukatzeaz dago. Beraz, interesatuek jo lehenbailehen apuntatzera.

**DATORREN ASTEBURUAN, KONTZERTUA GAZTETXEAN**

Datorren zapatuan, ekainaren 12an, kontzertua egingo dute gaztetxean. Galiziako Ultracuerpos taldeak eta Arrasateko Los Cretinos taldeek joko dute. Ultracuerpos taldea hainbat alditan izan da Arrasaten, eta oraingo honetan *The right way* izeneko diskoa aurkeztuko du. Bi taldeek rock-and-rola egingo dute.

## Gaur 'Body-Jam' erakustaldia egingo dute

I.B.

**Gaur, egubakoitza, Irudisport gimnasioak Body-Jam erakustaldia egingo du gaztetxean. Bi saio egingo dituzte: bata, 19:00etan; eta bestea, 21:00etan. Gura duenak dantza egin ahal izango du.**

Arrasateko Irudisport gimnasioak *fitness* modalitate berri baten erakustaldia egingo du gaztetxean. Hitzordua gaurko, egubakoi-

tza, egin dute, eta horren bi saio egingo dituzte: bata, 19:00etatik 20:00etara; eta bestea, 20:00etatik 21:00etara, hain zuzen ere.

*Body-Jam* modalitatea Australiar asmatu zuten eta poliki-poliki nazioartean zabalduz joan da. Dantza estilo askoren nahasketa dela diote: dance, hip-hop, techno, jazz, latinoak, karibetarrak...

Adin guztietako lagunek egiteko modukoa dela azaldu digu Irudisport gimnasioako Mertxe

Valdiviesok. Valdiviesok erakustaldian esku hartuko du, berak eta gimnasioa beste lau lagunek ere bai. Irakasle horiek Madrilen ikastaroak egiten dituzte, eta orain *fitness* modalitate hori ezagutzera eman gura dute.

**GAZTEEI ERE EZAGUTZERA EMATEA**

Erakustaldi horren bultzatzaileek hainbat dantza uztartzen dituen *fitness* modalitate hori gazteen artean ezagutzera eman gura dute. Horretarako, bi orduko era-

kustaldia egingo dute, eta gura duten guztiek praktikatzeko aukera izango dute. Bide batez, antolatzaileek aholkatu dute dantza egiteko interesa dutenei txandala edo arropa eroso eramateko; besterik ez dutela behar.

Ekimenaren antolatzaileek gonbitea egin gura diete gaztetxeko ohiko erabiltzaileei, gazteei, eta baita gainontzeko herritarrei ere gaztetxera hurbildu eta *Body-Jam*-a zertan datzan ikustera joateko.



**Metal aroztegia eta PVC**

Leihoak eta itxierak  
**Egur aroztegia**

Leihoak  
Ateak  
Armairu enpotratuak  
Armairu-fronteak  
Mota guztietako zoruak  
Lixatua eta bernizatua

**Osagarriak**

Neurrira egindako alfonbrak  
Gortinak, mahaiak eta aulkia

arbolapeta



**BASATI TABERNA**  
PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK  
943 711768

Erakusketa eta biltegia:  
Kale txiki 3 behea (Musakola)  
Tel. eta faxa: 943 77 11 20

## ZAHARREN ETXETIK



Herriko erretiratuak oso gustura joaten dira Musakolara, aspaldiko lagunak ikustera eta bazkaltzera.

AITOR LIZARRALDE

## Erretiratuek bat egin zuten SUDCek urtero egiten duen bazkarian

IKER BARANDIARAN

Urtero moduan, SUDC elkarteak Arrasateko erretiratuen eguna antolatatu zuen. Hori joan den zapatuan, maiatzaren 29an, izan zen, eta guztira 1.040 erretiratu izan ziren ospakizunean. Horretarako, interesatuek egun horren aurretik erretiratuen elkarteetan edo udaletxean izena eman behar izan zuten. Aurreko egunetan 1.040 baino lagun gehiago apuntatu ziren, baina horietako gutxi batzuek egunean bertan azken orduan ezin izan zuten joaterik izan.

12:00etan meza nagusia izan zuten San Juan Bataiatzailearen elizan. Horren ostean, 14:30ean, bazkari erraldoia zuten Musakolako kiroldegian. Horietako asko erdialdetik Musakolaraino joan ahal izateko, Udalak eta SUDC elkarteak autobusak ipini zituzten, doan, Garibaitik, Abaroa paretik, hain justu ere. 14:00etarako, Musakolako kiroldegiko inguruak erretiratuz bete zeuden. Urteroko hitzordua dute hori, eta aurten ere oso pozik jo dute hara aspaldiko lagunak ikustera.

### 1.040 LAGUN BATU ZIREN

Musakolako kiroldegiko kantxa goraino bete eta han bildutakoek apetitu onez jateari ekin zio-

ten. Auzo Lagunek prestatu zuen bazkaria, eta honako menua izan zuten: esparragoak, urdaiazpikoa, kabratxo pastela, arrain zopa, ahate konfita, tarta, izozkia eta kafea, hain zuzen ere. SUDCeko lagunak eta boluntarioek zerbitzatu zituzten mahaiak eta ez zen inor gosez gelditu. Bazkalostean SUDCek hainbat opari banatu zituen: bakoitzari nezeser txiki bat eman zioten. Horrez gain, Rafa Fernandezek, mikrofonoa eskuan, nagusien ome-

*Musakolan bildutako nagusienak Brigida Monje eta Ladislao Guinaldo izan ziren*

*1.040 erretiratuk esku hartu zuten SUDCek urtero antolatzen duen bazkari erraldoian*

naldia zuzendu zuen. SUDCeko presidente Andoni Altzelaik, Inazio Lakunza alkateak eta danborradako Marta Ugartek eta Aitor Abarrategik banatu zituzten opariak.

**BRIGIDA MONJE ETÁ LADISLAO GUINALDO** 98 urteko Brigida Monjek lore sorta eta oparia jaso zituen; eta 93 urteko Ladislao Guinaldok txapela eta oparia; bi lagunak Abaroa elkarteak bazkideak dira. Eta poz-ozik gelditu ziren. Iaz ere txapela Guinaldori eman gura zioten, baina berak, jende artean, ez zuen entzun, eta sari barik gelditu zen.

SUDCek urtero bazkari horrekin batera egiten duen zozketako zenbaki saritua 9.185 izan da. Zenbaki hori Abaroan saldu zuten, eta saria da Benidormera bidaiia.

Aurtengo jaiak aurreko urteetako eno antzerakoa izan da, ia ekitaldi berberak antolatatu dituzte-eta: meza, bazkaria, opariak, nagusien omenaldia...

### OHI BAINO LEHENAGO BUKATU ZEN

SUDCeko arduradunek jakinarazi digutenez, jaiak inoiz baino lehenago bukatu zen eta erretiratuek inoiz baino lehenago alde egin zuten, horietako asko Juanito Artzamendiren hileta-elizkizunetara joan zirelako, San Juan Bataiatzailearen elizara, hain zuzen ere.

## LABUR

### Abaroa elkarteak erretiratuek Kantabriara txangoa egingo dute ekainaren 16an

Abaroa elkarteak Kantabriara txangoa antolatu du. Ekainaren 16an joango dira, bi autobusetan. Lehengo geldiunea Santanderren egingo dute. Hamarretakoa egin eta aisialdirako denbora izango dute. Horren ostean, Islara joko dute bazkaltzera. Handik bueltan, geldiunea egingo dute Castron. Ekainaren 8an, martitzena, eman beharko dute izena, eta 14an txartelak hartuko dituzte.

### Najerara bidaiia egingo dute Uribarri elkarteak erretiratuek, ekainaren 17an

Uribarriko erretiratuek Najerara bidaiia egingo dute ekainaren 17an. 08:00etan irtengo dira Arrasateetik. Lehenik, Najera bisitatu eta hango katedrala ikusiko dute. Bazkaldu ostean, Ozkabarte (Santa Domingo de la Calzada) ikustera joango dira. Izenematea zabalik dago, eta txartelen zozketa eguaztenean, hilaren 9an, egingo dute.

### Abaroa elkarteak Portonovora (Galizia) bidaiia egingo du irailaren erdialdean

Irailaren 12tik 19ra bitartean Abaroa elkarteak Portonovora bidaiia egingo du. Interesatuek 285 euro ordaindu beharko dute eta ekainaren 7tik 18ra apuntatu beharko dira. Prezio horren barne honako zerbitzuak egingo dira, besteak beste: garraioa, pensio osoko erregimena eta bi txango.

### Berbaldia eta ibilaldia egingo dituzte Uribarri erretiratuen elkartek, 10ean eta 16an

Uribarri elkarteak erretiratuek hainbat ekintza egingo dituzte datuzen egunetan. Eguenean, ekainaren 10ean, lehen sorospenen gaineko berbaldia egingo dute, 17:00etan. Gipuzkoako Erizainen Eskolako kideek emango dute. Eta ekainaren 16an, Garagartzara ibilaldia egingo dute. 16:00etan egin dute hitzordua.



### Abaroako lagunak Peñiscolan izan ziren

Maiatzaren 6tik 15era Abaroa erretiratuen elkarteak 144 lagun Peñiscolaraino joan ziren, hiru autobusetan. Han, pensio osoko erregimenean bederatzita gau egin zituzten, eta oso gustura gelditu ziren egonaldiarekin eta janariarekin.

Egun gehienetan eguraldi ona izan zuten, eta erretiratuek asko hoteleko igerilekuan eta baita hondartzan ere bainatu ziren. Egun baten ekaitza izan zuten. Horrez gainera, paseatzeko aukera polita ere izan zuten, eta Ebro ibaiaren delta bisitatu zuten, baita ontzian ibili ere. //B.

## EZETZASMATU



Non dago argazkian ikusten duzuen armari hori?  
Arrastoa: inguruan lanak egiten dabilta orain.



Super BMk emandako 30 euroko erosketa-txartela zozketatuko du ARRASATE PRESSEk asmatzaileon artean!

ERANTZUNA .....

IZEN-DEITURAK .....

TELEFONOA .....

Ekarri txartela **MARTITZEN ARRATSALDEAN**  
ARRASATE PRESSERA!

Scottex komuneko papera  
12 erroilu

**2,90€** 483 pta.

Super BMn beti eskaintzarik onenak!

## AURREKO ZENBAKIKO IRABAZLEA

**FELIX AYASTUY**rendako izan da 30 euroko erosketa-txartela. Zorionak, Felix!

Galderen erantzun zuzena:

**Batzar Nagusien 25. urteurrena ospatzeko.**

U.M.

## ARRASATEKO HISTORIA

## Joan den mendeko igandeen gainekoa

NIRE HAURTZAROKO... / VELEZ DE...

Saioi bateko ohiturak kontatzen segituko dugu datozen asteotan. Oraingoan, Velezen *Nire haurtzaroko* Arrasate liburua aukeratu dugu:

"Igandeak, beraz, asteko egunik beteena ziren guretzat. (...) 09:45ean ospatzen zen igandeko haurren meza, Parrokian. Lehenago San José ikastetxeoketako arrosarioa errezatzen genuen, nork bere gelakideekin. Jarraian Gazteluondotik elizaraino jaisten ginen biko ilaran, eskutik helduta, eta hara biltzen ginen beste ikastetxeetakoekin batera. Funtzioa *Subiremos al altar del Señor* kantarekin hasten zen eta elizkizunak ez zuen hiru ordu laurden baino gehiago irauten. 10:30ean Meza Nagusia baitzen eta ordurako umeok elizatik kanpo egon behar genuen. Arimarekiko betebeharren ardura kenduta, goiza bakoitzak nahi zuen bezala eratzten zuen. Askok Gurea frontoia aukeratzten genuen, 11:00etan herriko pilotarien arteko txapelketa egiten baitzen. Portaloitik botatuko etxaluzeko batek adierazten zuen hasiera. Frontoia beteta egoten zen. Antolakuntzaren arduradun nagusia Jose Luis Elustondo *Baratero* genuen eta txapelketaren erakar-



Igandean meza entzutera, pilota partiduak ikustera eta zinemara joaten ziren Arrasateko neska-mutiko gehienak.

ARTXIBOA

penik bizienetakoa kinielak ziren, hau da, partidu bakoitzaren erdiko eta bukaerako emaitzak iragartzeko txartelak. Txarteleko bi pezeta pagatzen zirela kontuan izanik, irabaziak derrigor apalak izan behar. (...) Igande goizeko partiduak amaituta bazen aukera

*Bazkalostean,  
Iturripera ez  
zihoanak Gurean  
eman zezakeen ordu  
pare bat*

frontoiko aulki higikorrek berriro kantxan ipintzeko, 16:00etan izango zen zine emanaldirako aretoa prest eduki behar baitzen. Aulkiak jartzen aritzen zirenek doaneko sarrera zuten arratsaldean. Hori dela eta, laguntzaile eskaintza handiagoa zen lanekuaren

premia baino. Eta bazkalostean, Iturripera ez zihoan gaztetxoak Gurean eman zezakeen ordu pare bat, asteko pelikula gozatzen. Pezeta bat ordaintzen genuen txartela. Frontoiko kantxa zinetoki bihurtuta, pantailako heroien abenturak eskaintzen zitzaizkigun, atsedendian aretoa merkatu txiki bat bilakatzen zelarik: *Capitán Trueno*, *Jabato*, *Roberto Alcázar* eta komikietako gainerako pertsonaien abenturak zekartzen aldizkariaren eta modako kromoen trukaketa egiten zen parket berezi hartan, neska-mutilek ez ezik Santa Agedako gaixoei ere parte hartzen zutelarik.

Egia esan, Santa Agedako gaixoak pertsonaia arruntak ziren orduko Arrasateko hiri-paisaia. Igandean ez ezik asteko egunetan ere haien presentzia guztiz normala zen. Baina jaietan kopurua biderkatu egiten zen, Jauregi aramioarraren 14:00etako autobusa txiki geratzen zelarik zoroetxeko bidaiarientzat. Guretzat, herritarrontzat, haietako askoren historiak hurbilak egiten zitzaizkigun, gaixoei eurei behin eta berriz aditu ondoren. Mutikook, gainera, ostegun arratsalde askotan Santa Agedako kirol instalazioak erabiltzen genituen eta ikusle zintzoak ziren barnetegikoak".

# Txirritola

ARAMAIO / Barikua / 2004ko ekainaren 4a / 111. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Ubane Madera • Otolora Lizentziaduna 31 20500 ARRASATE • Tel.: 943 71 25 11 • Faxa: 943 71 23 89 • Posta elektronikoa: txirritola@goiena.com • Lege gordailua: SS.1084/02

## Bi aramaioarrek aurtengo rallysprintean parte hartuko dute, ekainaren 12an


Ekainaren 12an Aramaioko III. Rallysprinta jokatuko dute. Eta dagoeneko erakargarritasun berezia dauka aurtengo probak, Aramaioko bi lagunek korritu behar dute-eta: Haritz Errastik eta Ander Oionek. Lasterketarako guztia gertu dute; automobila ondo gordeta, garajea.

Haritz Errasti *Azpiko*-k pilotu lanak egingo ditu rallysprintean. Ander Oion, berriz, kopilotua izango da. Saltsa-maltsa horretan zela sartu ziren galde-tuta, zera erantzun digu Haritz Errastik: "Nik beti izan dut karreraren bat egiteko gogoia, eta iaz, rallysprintean ibilbide zati berria ezarri genuenean, are gehiago. Pentsatu nuen hurrengo urtean hemen korritu egin behar nuela. Dirua aurreratzen eta aurreratzen hasi eta poliki-poliki, bada, horixe, lortu dugu, hementxe gaude". Horren harira, guztia gertu izateko diru dezente batu behar izan dutela kontatu digute: "Zozketarako txartelak atera ditugu, itsulapikoa ipini genuen Anboton, nahiz eta gero, itsulapikoa lapurtu egin diguten, eta dirua aurreratzen ibili gara. Horretarako diru mordo behar da-eta".

Dirua behar izan dute, besteak beste, rallysprinterako ibilgailua erosteko: Usurbildik ekarritako Citroën AX Sport autoa. Eta jakina, jantziak, ibilgailu barruko elementu bereziak-eta erosteko ere gastatu dute diru-tza dezente. Hori bai, babesleren bat lortu dutela kontatu digute.

### ZALETASUN HANDIA

Lehen esan dugun moduan, Haritz Errastik Ander Oion izango du lagun. Haritzek kontatu digu beste ezer baino lehen automobila erosi zuela eta gero korritzeko lagun bila hasi zela. "Laguna behar da, rallysprint batean derrigorrezkoa delako kopilotua eramatea. Boluntario bat eskatu nuen, eta Anderrek nahi izan zuen". Horren harira, automobil-zalea dela esan digu Ander Oionek: "Batez ere abiada handiak gustatzen zaizkit". Era berean, aurreko urteetako rallysprintak antolatzen laguntzen eta lasterketa adi-adi jarraitzen ibi-



Citroën AX Sport autoa gordelekutik atera eta argazkirako erakutsi digute Haritz Errastik eta Ander Oionek.

*"Zozketarako txartelak atera ditugu, itsulapikoa ipini genuen... Diru mordo behar da"*

li dela ere kontatu digu Ander Oionek.

### ENTRENATZEA, ARAZOA

Prestakuntzaren gainean, berriz, kontatu digute bestelako pilotuekin berba egiten dutela sortzen zaizkien zalantzak-eta argitzeko, Debagoieneko Mikel de la Torrerekin eta Jonathan Suarezekin, esaterako. Edozelan ere, entrenatzeko arazoak dituztela ere esan digute: "Horrekin lotuta, ustekabea izan genuen. Ibili ginen Kurtzetan autoa probatzen, eta bide bazterrera joan ginen. Automobila hondatu genuen; pentsa, hasi baino lehe-

*"Kurtzetan autoa probatzen genbiltzala hondatu egin genuen automobila"*

nago autoa apurtuta. Diru gehiago ipini behar izan genuen eta automobila konpondu genuen. Harrezkero, ondorengo dugu gure AX".

Eta korritzeko automobila garajea gordeta izateak zera esan nahi du: 26 urteko bi gazteek ez dutela ia ordurik sartu lasterketarako automobila gidatzen, hortaz, ez dute askorik entrenatzerik izan. "Pentsatuta neukan Olabarrira-edo joatea; dena dela, lege aldetik ezin da autoarekin kalean ibili, eta jakina, edozein bidetan ere ezin zaitezke zoroaren pare ibili; hemen jende asko dabil oinez edo bizi-

*"Gerra emango dugu, akaso ez dugu irabaziko, baina gerra emango dugu"*

kletan. Era berean, asmoa neukan Arrateko lasterketan korritzeko, baina automobila behar ez zen moduan *estreinatu* nuen...". Hala, bada, esan genezake ekainaren 12koa izango dela Haritz Errastiren eta Ander Oionen benetako estreinaldia.

Nerbio aldetik oraingoz ondo dabilzala esan digute. Oso animatuta daude, gainera: "Gerra emango dugu, akaso ez dugu irabaziko, baina gerra emango dugu. Beste lehiakideek ondo zapaldu beharko diote guri irabazteko". Ander Oion, berriz, baikorragoa da: "Irabazi egin behar dugu, duda barik".

*"Aurten lasai ibiliko gara, baina gure asmoa da datorren urtean txapelketan ibiltzea"*

### BESTELAKO LASTERKETAK

Aramaioko lasterketa korritu ostean, halako gehiagotan parte hartzeko asmoa sendoa erakutsi digute bi gazte aramaioarrek: "Aurten lasai ibiliko gara, baina asmoa da datorren urtean Euskal Herriko Txapelketan parte hartzea. Aurten ahal duguna egingo dugu".

Bukatu baino lehen, jendea animatu nahi izan dute Aramaioko rallysprintean parte hartzeko, eta jakina, egunean bertan animatzera joateko. Eta, besteak beste, lehiakide dezentek parte-hartzea espero dute antolatzaileek.



**TELEFONOJAKINGARRIAK**

**OSASUNA / LARRIALDIAK**

Osasun etxea (txandak)	945 44 53 40
Botika	945 44 50 03
Udaletxea	945 44 50 16
Erzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Gurutze Gorria (Legutio)	945 45 52 52
San Martin Eskola	945 44 50 04
Taxia eta autobusak	945 44 50 33
Udal Kinoldegia	945 44 53 35
Postetxea	945 44 50 83
Zulako Eskualdea	945 43 01 67
Suhiltzaileak (Zubillaga)	943 78 28 00

**AUTOBUSORDUTEGIA**

ARRASATE	ARAMAIO	GASTEIZ
07:00	07:15	08:00
10:00*	10:15	
11:00	11:15	
12:00*	12:15*	13:00
15:15	15:30	16:15
17:20	17:35	
18:30*	18:45	
20:30	20:45	21:25
21:00*	21:15	

GASTEIZ	ARAMAIO	ARRASATE
	07:50	08:05
08:15	09:00	09:15
	10:15*	10:30
	11:15	11:30
13:10	13:55	14:10
16:20	17:05	17:20
	17:35	17:50
	18:45*	19:00
19:30	20:00	20:15

**OHARRA:** izartxoan duten orduetan eskaeraren arabera zerbitzua eskaintzen dute. Auzotako bizilagunei zuzendutakoa da, eta autobusa erabili gura badute, bezperan dituz beharko dute honako zenbaki honetara: 629 54 59 23

**OHARRAK**

**BAÑERAKOEN EMAITZAK**

Emaitza bikainarekin agurtu zuten denboraldia Bañera taldeko mutilek: 10-4 irabazi zioten Diocesanak Nieves Cano taldeari.

**BARIKUKO ZINEMA**

Aurrera jarraitzen dute barikuko zinema saioek. Ekaineko egitarauarekin hasteko, Jim Sheridan zuzendariaren *En América* filma aukeratu dute. Samantha Morton, Paddy Considine eta Djimon Hounsou dira, besteak beste, aktoreak. Jim Sheridanek *Mi pie izquierdo* eta *En el nombre del padre* filmak zuzendu ditu lehena-go, besteak beste. Bestalde, gogorazi beharra dago, urtero moduan, domekako zinema saiorik ez dela egongo ekainean.

**SALABERRIREN LIBURU BERRIA**

Liburua argitaratu berri du Patxi Salaberri aramaioarrrak. *Euskal Klasikoen Atarian* izenburua ipini dio. Izan ere, 32 euskal idazleren aitzinsolasak jasotzen ditu liburuak, XX. mendera bitartean idatzitakoak, hain zuzen ere.

**Datorren astean hasiko dira olioak eta pilak batzen**

UBANE MADERA

Datorren astelehenetik aurrera, etxean erabiltzen diren olioak birziklatu egin ahal izango dira. Horretarako, *Beterinarixuaren txabola*-n ontzia ipini dute, 100 litrokoa. Horrekin batera, erabilitako pilak ere leku berean utzi beharko dira astelehenetik aurrera. Hala jakinarazi digu alkateak.

Iragarritako moduan, etxeko olioak batzen hasiko dira Aramaion. Astelehenetik aurrera, *Beterinarixuaren txabola*-ko atea zabalik egongo da, arazorik ezean, egun osoan. Hala, etxeko olioak birziklatu nahi duenak pote batean sartu eta *Beterinarixuaren txabola*-ra eraman besterik ez du. Han 100 litroko ontzi bat ipini dute, eta bertan hustu beharko da


potea. Gero, potea osterara etxera eraman behar da, ezin da txabolana laga.

**PILAK, BILGARRI BARIK**


Mertxe Mondragon alkateak jakinarazi digunez, etxeko olioekin batera, datorren astelehenetik aurrera pilak ere *Beterinarixuaren txabola*-n utzi beharko dituzte herritarrek. Kasu horretan, pilak bakarrik utzi beharko dituzte, hau da, inolako bilgarri barik. Pilak lagatzeko beste ontzi bat ipiniko dute.

**IBILGAILUEN OLIOAK**

Bestalde, gogoratu beharra dago ibilgailuetan (traktoreak, motozerrak...) erabilitako olioak ere birzikla daitezkeela Aramaion. Kasu horretan, Iturroste garajean ipini zuten olio mota hori batzeko ontzia.



Arazorik ez badago, egun osoan izango da zabalik *Beterinarixuaren txabola*-ko atea.



**Udaletxearen antzinako egitura agerian**

Udaletxea egokitzeko lanak egiten dabilta azkenaldian. Eta ustekabea izan dute. Izan ere, igogailutik osoko bilkuren aretoa eta hirugarren pisuko beste gela batera sartzeko sarrera berriak egiten zebiltzala, antzinako bi ate aurkitu zituzte. Hain justu ere, orain atea egitea erabaki duten leku berean azaldu dira, udaletxearen antzinako egituraren adierazle. /U.M.



Besteak beste, plazako zuhaitzen hostoak jaten dituzte mamorroek.

**Ibargoia kaleko plazako zuhaitzak tratamenduan**

U.M.

Arabako Diputazioko aditu batek egindako azterketaren arabera, Ibargoia kaleko plazaxoan dauden zuhaitzak, bananondoak, gaixorik daude. *Corynthuica Ciliaca* izeneko mamorroz beteta daude. Haiek, besteak beste, hostoak jaten dituzte. Eta dagoeneko eman diete tratamendua.

Pozik hartuko dute albistea Ibargoia kaleko auzotarrek. Batez ere, kaleko plazaxoan egoten direnek. Azkenaldian, mamorroz betetzen zaizkie jantziak eta etxeko arropak. Kontatu digutenez, iaz okerragoa izan zen egoera. Baina badirudi konpontzeko bidean dela. Hala adierazi digu alkateak.

Haren esanetan, egunotan Diputazioko aditu batek zuhaitzen egoera aztertu du eta *Corynthuica Ciliaca* (bananondoaren tigre) izeneko mamorroa dutela ikusi du. Hala, mamorro horri aurre egiteko tratamendua zehaztu du adituak, eta dagoeneko ipini dituzte tratamenduan. Berez, behin ipintzea nahikoa litzatekeela esan du adituak, baina, hala ez bada, berriro ipiniko dituzte tratamenduan. Orain, emaitza ikusi behar. Edozelan ere, dagoeneko mamorro batzuk akabatuta azaldu dira.

**LEKU BAKARRA**

Esan beharra dago Ibargoia kaleko plazaxoko zuhaitzek dutela bakarrik *Corynthuica Ciliaca* mamorroa. Herriko gainerako zuhaitzak ez dira kutsatu.

**LABUR**

**Rallysprinterako txartelen zozketa egin dute, eta badakigu zein den irabazlea**

Datorren ekainaren 12ko rallysprinteran korrituko duten aramaioarrei laguntzeko, afari baten zozketarako txartelak atera zituzten. Hain justu ere, joan den zapatuan egin zuten zozketa. Horren arabera, 9.185 zenbakiak irabazi du Iparralde tabernako afaria. Eta, jakinarazi digutenez, Haritz Astondoak irabazi du saria. Zorionak, Haritz!

**Iritsi dira udaletxera Aramaioko Udalaren kontrako bi errekurtsioak**

Bi errekurtsio jaso ditu Udalak. Bata udaletxeko balkoian *Euskal Presoak Euskal Herrira* leloa duen pankarta ipintzeagatik. Errekurtsioak dio udalbatzarrak osoko bilkuran erabaki zuela pankarta hori erosi eta ipintzea. Eta errekurtsioaren arabera, hori terrorismoari babesa ematea da. Errekurtsioan ez dute zehaztu noiz izango den bista hori. Alkateak jakinarazi digu erabakia hartu zeneko osoko bilkuraren espedientea bidali dutela. Edozelan ere, kasua orain abokatuen eskuetan dago. Alkateak gaineratutakoaren arabera, balkoiko pankartak eta Ikurrina kenduta daude, baina udaletxean egiten dabilta lanengatik kendu dituzte. Lanak bukatu ostean berriro ipiniko dituztela esan digu. Bestalde, *Berria* egunkariari dirulaguntza emateagatik beste errekurtsio bat jaso du Udalak. 1.500 euroko laguntza eman zion *Berria*-ri, euro bat herritar bakoitzeko: 1.000 euro akzioak erosteko eta beste 500 euro laguntza moduan emateko. Bigarren errekurtsio horren bista ekainaren 30ean egingo dute.

## ERRETRATUZAHARRA

## Errepublika sasoiko herriko dantza taldea

**S**an Juan jaiak baino lehen, Haurren Eguna ospatu ohi dute Arrasaten. Aurten ere hala egingo dute, ekainaren 20an. Hori aprobetxatu, eta oraingo astean argazki zaharraren tartean antzinako dantza talde baten argazkia ekarri dugu, joan den mende hasiera aldekoa, hain zuzen ere.

Honako hauek agertzen dira argazkian, goiko ilaran ezkerretik eskumara: Lucio Markaide maisua, Elisa Garai, Aiastui (goiko ilarako lehenengo mutikoa), Nafarrate, Divino (Ikurrinari eusten dagoena), ezezaguna, Jose Maria Lasagabaster, Santi Etxeberria Zurdo, ezezaguna, ezezaguna, Jose Ignacio Velez de Mendizabal, Tomas, Mikel Arrieta eta azkeneko laurak ezezagunak dira.

Bigarren ilaran, berriz, ezkerretik eskumara honako hauek daude: Elgetako neska bat, ezezaguna, Felisa Aranburu, Laura Ortuoste, Florencia Arregi, Nieves Aranbarri, ezezaguna, Juaristi (bigarren ilarako aurreneko mutikoa), Sabin Maiztegi, Exposito,



Re-Re tabernakoa, Carmen Garcia eta Alegria tabako dendakoa.

Eta eserita, ezkerretik eskumara honako hauek daude: Nati Villar, Gloria Uribetxebarria, Jesusa Barrutia, Rosario Bolinaga, Matilde Osinaga, ezezaguna, Kontxita Uriona, ezezaguna, ezezaguna, Garbiñe

Maiztegi, Miren Velez de Mendizabal eta Consuelo Azkarraga. Eta aurreaurrean eserita dauden bi mutikoak dira Jon eta Andoni anaiak.

Argazkia 1931koa da. Urte haietan, euskal kulturaren gaineko hainbat ekimen antolatu zituzten Arrasaten. Hala, besteak beste, dantza taldea


sortu zuten, eta noizean behin herriko ikuskizunetan eta ekitaldietan ibiltzen ziren.

**Argazkia eta informazioa:** Arrasate, langileek eraikitako herria liburua.  
**Urtea:** 1931.

## NOLAALDATUDIRENGAUZAK

### Lana, Udala, eta orain, BZ sistemas

**H**iru enpresa horiek izan dira azken urteotan argazkian azaltzen den eraikinean, San Andres auzoan. Lana nekazaritza kooperatiba 1962an sortu zen, baserriari industriaren barruan irtenbide bat emateko asmoarekin. 1990ean, berriz, aldaketak izan ziren: eraikin hori gaztak egiteko lantegi bilakatu zen, eta Udala kooperatiba izena jarri zioten.



≈ 1990 Esnearen komertzializaziotik gaztak egiteko lantegi izatera pasa zen eraikina. Egun, oso bestelako lana egiten dute hor.



2004 Bedoñarako bidean dagoen eraikin horretan bulegoetarako altzariak saltzen dituzte orain. 1999an jarri zuten martxan negozio hori.



**Gambrinus**  
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak
- Pintxoak eta kazuelatxoak

Otalora Lizentziaduna 40-42  
Tel.: 943 79 53 32

**UGARAN**  
jatetxea

Garagartza auzoa  
Tel.: 943 79 76 58  
ARRASATE

**HIES**  
**BERRI**

Tel.: 943 79 26 99

**S. CARRASCAL S.L.**

**Guk egindakoak:**


- Sukalde altzariak
- Horma-armairuak
- Trastelekurako armairuak

**Fabrikaren erakusketa**

Gipuzkoa etorbidea 6 -1.a  
Tel./Faxa: 943 79 01 82

**ZUBIZARRETA**  
**LANTEGIAK**

Gipuzkoa etorbidea 22  
ARRASATE  
Tel.: 943 79 15 65



MAHAINGURU BEREZIA GOIENA TELEBISTAN

# Europar hauteskundeak

**Goitb**  
Goiena Telebista

**Ikustekoa!**

**MAHAINGURUA**  
Europar hauteskundeak

**Martitzenean, ekainaren 8an,**  
20:30ean eta 22:30ean

# Etxeko konponketak

## Elektrizitatea



**Aranzabal** Koop. E.

Instalakuntza elektrikoak  
Antena kolektiboak  
Zerkaosteta 15  
Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

## Iturgintza



iturgintza

Gipuzkoa etorbidea 39-behea • Tel.: 943 77 01 85

## Leihoak



**ARGÍ PLASTIK**

PVC, aluminio termiko  
eta poliuretanozko  
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola 1- Pab.  
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

## Margoak

# Apain

MARGO ETA APAINKETA  
Matiena 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

## Txorrota

Nafarroa etorbidea 5 atzealdea  
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17



**ION LEIHOAK**

PVC • Aluminioa RPT  
Poliuretanoa • Bitarikoak

**Ateak • Zoluak**

Kánpantorpea 2-behea • ARRASATE  
Tel./Faxa: 943 79 11 35

## Eraikuntzak

### Arrasate eraikuntzak SL

Meatzerreka auzoa 30  
Tel.: 659 67 17 59 / 943 77 12 26



**10.000 KOLORETAKO MENUA**  
Ferrerias 36-behea • Tel.: 943 79 12 87



**Izcue  
Irurzun**

Igeltserotza orokorra  
Etxeen berrikuntzak  
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66



**ZUTARRI S.L.**  
Eraikuntza enpresa

Zerkaosteta 17 behea.  
Tel: 943 79 67 78 Faxa: 943 77 10 09

Zure publizitatea hemen jartzeko deitu 943 71 23 91 telefonora